

# ttüpi-ttapa

1996ko urtarrilak 25 • 174. zenbakia


Erreportaia

**Mendien gestioa:  
zalantzak etorkizunari buruz**



**KARRIKA BETE KARROZA  
SUNBILLAKO INAUTERIETAN**





# Polo Berria

Desberdina da,  
bere kalidade, fidagarritasun,  
kapazidade, segurtasun eta prezioarengatik.

**1.295.000 Pta.**

Polo Berria. Volkswagen-eko tikiak xume izatearen haunditasuna erakusten du. Kanpotik eta barrendik, dotorea eta dinamikoa, egiazko Volkswagen bezalaxe. Polo Berria maniobratzeko goxoa da, segurua eta barrendik lekutsua. Volkswagen bati dagokion fidagarritasuna, ekonomia, iraunkortasuna eta kalidade haundiko teknika frogatu ahal izanen duzu berekin.

BEZa, garraioa, matrikulatze zerga eta promozioa prezioan sartuak. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera bitarte.



**Polo Berria**

Volkswagenen kontzentratua

**SAMPI ARAGON**

Leitzako errepidea • © 450354 / 450759  
D O N E Z T E B E



## BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA



# PAPER ETA KARTOI BILKETA SELEKTIBOA

### ZERGATIK BILKETA SELEKTIBOA?

Otsailaren 1ean hasiko den zerbitzu berri honekin, Bortzirieta Mankomunitateak estatu eta Europa mailan zabor eta hondakinak berreskuratzeko dauden aholkuak eta hemendik guttira izanen diren obligazioak beteko ditu.

### ZEINTZUK DIRA BIRZIKLATUKO DIREN MATERIALAK?

- Egunkariak
- Aldizkariak
- Liburuxkak
- Publizitate orriak
- Kartoizko kaxak
- Paper garbiak

### EZ dira birziklatzen ahal

- Zelulosazko pixoihalak
- Paper eta kartoi zikinak
- Plastikoz eta zelofanez inguratutako paperak



### NOLA BIRZIKLATU?

#### • ETXEETAN

Paper eta kartoiak PAPER BILKETA dieten zabor ontzietan sartu behar dituzu, karrketan ikusiko dituzun TAPA URDINEKO zaborontzietan.

#### • DENDA, LANTEGI ETA IBARDINGO BENTETAN

Paper eta kartoiak PLEGATU eta LOTU paketetan eta dendako atean edo zabor biltzaileek biltzen ahal duten tokian utzi. Hortik, **urte osoko astelehen** eta **ortzegunero** bilduko dituzte. **Ibardin**en, uda partean egunero bilduko dute **astelehenetik larunbatera**.

### ZER LORTUKO DUGU BIRZIKLATUZ?

- Zuhaitz ugariaren mozketa ekiditea: Birziklatutako tona batek 14 zuhaitzek ematen duten fibra kopuruaren berdintsua ematen du.
- **Energia aurreztea:** Paper berria paper zaharretik fabrikatuz, %30 eta %50 bitarteko energia aurrezpena lortzen da.
- **Zabor guttiago sortzeagatik aurrezpena:** Zaborren %20 inguru papera eta kartoi baita.
- **Kutsadura gutxiago:** Batez ere uren eta eguratsaren kutsadura.





DATUAK.....

❖ Florentino Gelbentzu da Sunbillako iñauterietako koordinatzailea.

❖ Ortziral honetan hasiko dira baserriz baserri egin-dako eskearekin eta igandean akituko dira karrozen desfilea eta bazkaria egin ondotik.

❖ Sekulako arrakasta du iñauteriak Sunbillan; zortzirehun pertsona inguruko herria izateko, igandeko desfilean 17 karroza ateratzen dituzte.

❖ Milioi bat pezetako aurrekontua dute iñauteriak eta errifa antolatzen dute diru hori ateratzeko.

❖ Igandean frontoiko 'sorpresa espektakulua' ikustera ikaragarritzko jendetza biltzen da.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOXEMANUEL IRIGOIEN

# Florentino GELBENTZU: «Sunbillako iñauterien arrakasta jendearen elkartasunean dago»

**NOIZ HASI ZINETEN IÑAUTERIAK INDARBERRITZEN?**

Iñauteriak beti izan du dira, baina hola fuerte xamar karroze-kin eta, joan dela hamahiru urte.

**ETA NON DAGO SEKRETUA HERRI OSOA IÑAUTERIETAN INPLIKATZEKO?**

Jende aunitz elkar-tzen gara eta unione haundia dugu. Hor dago sekretua.

**ANTOLATZAILEAK ULIBELTZAK ELKARTAKOAK ZARETE EDO BERTZE GISARA MOLDATZEN ZARETE?**

Ulibeltzak elkarte-koak hasi ziren. Orduan gazteak zirenak iñauteria behiti zoaiela ikusi zuten, eta diru puka bat paratu zuten eta urte hartan hiru karroza egin zituzten. Gero, pixkan-pixkan gehi-gora joan da.

**ZENBAT KARROZA ATERATZEN DIRA AZKEN URTEOTAN?**

Hamasei, hamazazpi, hamabortz... hor dabilta. Hoietatik badira hiru jan-edatekoekin ateratzen direnak; tortillak, ardua, salda, gaztainak, taloak...

**ORDUAN, IKUSTERA JOATEN DEN JENDEAK BADU AJARI BATZUK BOSTA BIDENABAR HANTXE**

► *«Urtero igandean, frontoian, zerbait diferentea egiten saiatzen gara, irri egiteko aukera ematen duen sorpresa zerbait. Joan den urtekoa ikaragarria izan zen, errekorra!»*



**BERTAN HAMEKETAKOA EGITEKO AUKERA ERE?**

Bai, bistan da.

**GAUZAK HORRELA, IÑAUTERIAK HERRIKO BESTEN PARE DIRA EDO BEHARBADA GEHIAGO?**

Nik neretako erran behar banu, gehiago. Egia da gero eta jende gehiago etortzen dela kanpotik, eta orain ar-

te, eguraldiak ere beti lagundu du.

**IGANDEAN FRONTOIAN EGITEN DEN 'SORPRESA' ESPEKTAKULUA DA KANPOKO JENDE GEHIEN BILTZEN DUENA?**

Bai, dudarik gabe. Frontoian errifa egiten da, zeri bat eta bildots baten errifa. Zenbakia ez bada lehenbizikotik ateratzen, berriz ere egiten da errifa, eta horrela zenbaki saritua ateri arte. Kontutan hartu behar da errifatik ateratzen den dirua nahitanahiezkoa dugula,

bertzenaz, guk egiten dugun modura hagitz iñauteri garestia baita. Eta errifaren tarte horretan, 'alukeria' ren bat egiten dugu jendeak ikusteko. Urtero zerbait diferentea egiten da, irri egiteko alderdia ematen duen sorpresa zerbait. Joan den urtekoa ikaragarria izan zen, errekorra.

**DENA ANTOLATZEAK LANAK EMANEN DITU, EZTA?**

Bai, aunitz. Eskerrak laguntzaile onak ditugun.



**Nafarroako Gobernuak hainbat aldaketa egin berri ditu mendien gestioa gauzatzen duten Departamenduetan. UPNk eta PSOEek duela pare bat urte adostu zituzten aldaketa hoiak, eta orain, Oñanoren gobernuak gauzatuko ditu.**

**Ez da datu gehiegirik ezagutzen aldaketan egiazko dimentsioak, bainan udalak eta mendiarekin zerikusirik dutenak kezkatuak eta zalantzaz beteak dabilta. Aldaketak hoberako edo txarrerako? Laister ikusiko da.**

TESTUA :  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
ARGAZKIAK:  
JUANKRUZ IRIARTE



# MENDIEN GESTIOA ZALANTZAK ETORKIZUNARI BURUZ

## NOLA DAGO MENDIAREN GESTIOA?

Mendi aunitz bainan guti aprobetxatuak

Gure eskualdeko lur eremu osoaren %80a larreak dira, eta hoietatik %60an arbolak daude. Halere, oihan errekurtsu guzi horren garrantzia handia izan arren, ateratzen zaion probetxua eskaxa da adituen ustez. Horren arrazoiak faktore desberdinek osatzen duten zerrenda luze bati leporatzen zaio.

### FAKTORE ESTRUKTURALAK

Faktore estrukturalen artean hauexek dira nagusienak: errekurtsoen planifikazio eta

gestioa, lur komunal eta partikularren arretoko auzia oraindik argitu gabe egotea hainbat herritan, lur-jabetzen atomizazioa, eta azkenik, oihanberritze inizatibek daramaten martxa motela.

### MOMENTUKO FAKTOREAK

Momentuko egoerarekin zerikusi handia duten faktoreen artean, hauexek dira aipagarrienak: zur merkatuaren desestrukturazioa, azken urteotan dagoen eskaintza maila eskaxa eta egurketarien enpresek egoera berrietara egokitzeko dituzten gabeziak.

**h**ortxe dago kokka: aldaketak hoberako edo txarrerako izan ote dira azkenean? Ez da oraindik datu zehatz gehiegirik ezagutzen balorazio

finko bat egiteko, eta gai hauek sartuak dabiltzanak diotenez, uda baino lehen ikusiko da aldaketa justifikatu duten teoriak eta hitz onak zertan gauzatzen diren.

### NEKAZARITZATIK INGURUGIRO DEPARTAMENTURA

Joan den urriaren 2an argitaratutako Foru Dekretu baten bitartez jakinerazi zen Nekazaritza Departamentua berantolatuko zela. Horren arabera, ordurarte Nekazaritza Departamenduaren barnean egona zen Mendi Zerbitzua aurrerantzean Ingurugiro Departamenduaren barnean egonen zela erabaki zuen Nafarroako Gobernuak, eta izena ere aldatzea erabaki zuen. Orain arte Mendi Zerbitzuko Oihanak Kudeatzeko Atala deitzen zena, hemendik aitzina Oihan Antolamenduko Atala deituko da.

Nolanahi ere, han eta hemen kezak eta zalantzak sortu duen kontua ez da mendien gestioaz arduratzen diren zerbitzuen adskripzioa Depar-



tamendu bati edo bertzeari loturik egotea, eta ezta ere modu batera edo bertzera deitzea. Egiatzko zalantzak aldaketa honen emaitzetan daude jarriak.

**GISA HONETAKO ESPERIENZIAK NEGATIBOAK ALEMANIAN ETA INGLATERRAN**

Foresna-Zurgaiak argitaratzen duen Zurgai izeneko azken bi aldizkarietan, oihan administrazioari buruzko bi artikulu luze etorri dira Eduardo Rojasek idatziak.

Rojasek Alemanian egin zituen mendi ingeniari itzasketak, eta hurbiletik ezagutzen ditu orain hemen planteatzen diren mendien gestio modeloek nolako ondorioak ekarri dituzten Alemanian eta Ingoterran. Gaur egun Kataluniako Oihan Partzuergoen gerentea da.

Aipatu bezala, Zurgai aldizkari bikoiztari buruzko bi artikulu luze hoietan, zehatz mehatz analizatzen ditu Rojasek han eta hemen dauden antolakuntza administratibo desberdinak eta baita horren araberrako funtzionamendu desberdinek ekarri dituzten ondorioak ere.

Gestio bateratuari buruz, honako abantailak eta desabantailak ikusten dizkio. Kontutan hartu, Nafarroan martxan jartzen ari direna, modelo honetan sartzen dela.

**ABANTAILAK**

Zerbitzuaren gastuak murriztuko dira eta ez da langilego bikoiztari gertatuko, denak departamendu bakarrean egonen baitira. Horrekin batera, bere teknikoaren aholkua kualifikatuagoa izanen da mendietan duten praktika eta administrazio lanak, biak batera landuko dituztelako. Azkenik, lurren jabetza konplexua den tokietan funtzionatzeko egokiagoa da, eta sistema honekin, mendien aprobetxamendu enpresariala eta produkzioarekin lotuak ez dauden bertze funtzioak hobeki integratzen dira elkarrekin.


**DESABANTAILAK**

Tekniko beraren bizkar jartzea poliziaren lana eta laguntzailearen lana negatiboa

**LEHENBIZIKO BALORAZIOAK**



**MIGUEL SAN MIGUEL**  
Doneztebeko alkatea



**LAZARO APEZETXEA**  
Goizuetako mendi kontzejala



**MIGUEL MARI IRIGOIEN**  
Etxalarko alkatea

**UDALEN ONERAKO IZANEN DELA ERRAN DIGUTE**

Lehen Mendi Zerbitzua zena Departamendu batetik bertzera aldatzeak nolabaiteko kezka sortu zuen hasieratik gure artean. Horregatik, bilerak egin genituen Nafarroako Gobernuako agintariekin gure kezkarren berriemateko, eta lasaitzeko erran ziguten. Geroztik Bertzen ere gai honetaz solastu ginen Otano presidentearekin, eta gauza bera erran zigun; aldaketa horrek ez ziola udalei kalterik ekarriko eta berdin funtzionatuko genuela.

**ALDAKETEN BERRI HAUNDIRIK EZ DIGUTE EMAN**

Egia esan, ez dakigu gauza garbirik asuntxo honetan. Maiz galdezka ibiliak gara bainan hor klarorik ez dago deus ere. Orain arte Mendi Zerbitzuekin genuen harremana bastante ona izana da, nahiz eta berriki arte subzeladorerik gabe egonak garen. Mendi Zerbitzua Ingu-rugiro Departamendura pasatu arte ez zigitela subzeladorerik jarriko esaten ziguten, baina exijitu eta exijitu ibili ondolik, azkenean abenduan lortu dugu bat jartzea.

**NOLA JAKIN UDALENTZAT BERDIN SEGITUKO DUELA?**

Aldaketak izanen zirela abisatu zutenetik duda ugari ditugu. Nahiz eta Nafarroako Gobernutik erran udalendako denak berdin segituko duela funtzionatzen, ez dugu inolako elementurik esku artean hori horrela izanen dela segurtatzeko. Bakarrik hitzak daude eta ez dago inolako planifikaziorik dunda hoiek argitzeko. Gauzak horrela, komeni litzateke hementdik gutira departamenduko buruekin biltzea dituzten ideiak kontrastatzeko.

da konfidantza maila minimoa lortu nahi bada. Ez dago tradizio nahikorik oihanen gestioan, eta tekniko beraren eskutan gestio lana eta aholkularitza lana egoteak itxuraz ekartzen duen abantaila, praktikan ez da horrela, eta baliteke kaltegarria ere izatea, komunalen gestioa murriztuz eginen baita.

**...ETA KONKLUSIO GISA**

Aipatutakoaren ondorioz, Rojasek honako konklusioa ateratzen du: «alde negatiboak hain dira larriak hobe dela antolaketa modu hau bazterrerara uztea, baita epe luzera ere». Alternatiba bezala, «gestio bateratua planteatu beharrean, gestio diferentziatua eta partehartzailea» proposatzen du. «Alde batetik Mendi Zerbitzuaren funtzio administratiboa egonen zen, orain arte bezala, eta bertzetik mendiaren gestioa eta zerbitzua». ■

**Mendi lanak egiteko tramitatutako laguntza eskarien balantzea**

Foresna-Zurgaiak elkarrekin duela aste batzuk tramitatutako laguntza eskarien balantzea eman du ezagutzera.

Laguntza hoiek mendi partikularretan lanak egiteko eskatuak dira eta dagoeneko Nafarroako Gobernuaren esku daude. Eskari kopuru handi honek, mendi lan eta oihanberritzea indartu dela agertzen du.

Eskariak tramitatzeko epea martxoan bukatzen da. Hortaz, horretan interesaturik daudenak badute Foresna-Zurgaiak elkarrekin deituz (151501 tfnoa) eta behar duten informazio eta laguntza hartuko dute.

**TRAMITATUTAKO LAGUNTZA ESKARIAK**

Herria	Eskariak	Aurrekontua	%
ARANO	2	534.435	0,4
ARANTZA	27	18.070.105	15,0
ARESO	2	964.815	0,8
BAZTAN	9	4.160.592	3,5
BEINTZA	4	1.263.917	1,1
BERA	10	5.092.354	4,2
ETXALAR	11	4.889.664	4,1
GOIZUETA	22	35.506.325	29,6
IGANTZI	17	7.649.292	6,4
ISABA	1	979.050	0,8
IZALZU	1	387.665	0,3
JAUARRIETA	1	880.000	0,7
LEITZA	1	1.218.224	1,0
LESACA	19	24.661.202	20,5
OTSAGI	1	480.000	0,4
ORONTZ	1	628.188	0,5
SALDIAS	1	331.058	0,3
SUNBILLA	4	2.761.147	2,3
URROTZ	3	3.763.116	3,1
ARAITZ	1	208.281	0,2
ZUBIETA	5	6.260.131	5,2
<b>Denetara</b>	<b>146</b>	<b>120.148.861</b>	<b>100</b>



E GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.200 ALE

TARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE  
ERRIKO ETXEO PLAZA, 1  
31780 BERA  
TFNOA: 63 11 88  
FAXA: 63 12 91

**ndaria:** Joxemanuel Iri-  
**Publizitatea:** Miren Kar-  
Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
ena, Joxemanuel Irigoien.  
**inistrazioa:** Amaia Goia.  
**akzio taldea:** Pello Ape-  
a, Juainas Paul, Kristina  
n, Bittori Telletxea.  
**emaileak:** Joseba Azpiroz,  
an Arozena, Juana Mari  
r, Ainhoa Mutuberria, Iban  
Txema Aldabe, Pello Etxe-  
xema Urroz, Patxi Otxan-  
a, Ixabel Maia, Josune Etxe-  
Pablo Mendiburu, Joseba  
bide, Alizia Olaizola, Margari  
nike, Koro Irazoki, Mixel  
ndiain, Jacqueline, Elixabet  
a, Garbiñe Maiz, Oskar  
rena, Alberto Sansiñena,  
Apezetxea, Aitor Arozena,  
na Boan.  
**oratzailak:** EHNE Nafa-  
Patxi Lasa, Mikel Bezunar-  
Joxe Javier Etxeberria,  
ka Zabala...  
**ategia:** Gertu (Oñati).  
**ttapak** ez du bere gain har-  
errigorrez, aldizkarian adie-  
ko erranen eta eritzien eran-  
unik.  
**nde Laguntzaileak:** Bera,  
Goizueta, Areso, Baztan,  
zubi, Zugarramurdi eta  
to udalak, Bortzirietako  
ara Mankomunitatea,  
rekako Zerbitzu Mankomu-  
a, Zugarramurdiko Akelarre  
ea...




izkari honek Nafarroako  
nuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Gazteak eta langabezia

#### Formakuntza eta he- mengo egoera ekono- miko hobeki ezagutu



Paskal DUHAU  
Langabetua. Senpere

Lan baten atxe-  
matea ez da errex-  
nihorentzat. Hori  
denek badakigu. Bainan are  
zailagoa da gazteentzat. Ego-  
era hortarik ateratzeko asmo-  
arekin hamar bat gazte bildu  
gara, abiapuntu gisa ideia hau  
hartuz: Euskal Herrian lan ba-  
ten eskuratzeko, formakun-  
tzaz bertzelde ez ote da pre-  
miazkoa ingurugiro ekono-  
miko ere ongi ezagutzea? Horre-  
la, batzuen eta bertzeen behar-  
rren ikusteak, ez ote lituzke  
ideia batzuk sortarazten ahal,  
lanbide batzuk eskainiz behar  
bada? Beraz, helburutzat har-  
tu dugu gazteeri egoera ekono-  
miko horren hobeki eza-  
gutzeko aukera ematea. Lehen-  
ik, sakondu nahi ditugun  
gaien zerrenda osatu dugu: in-  
gurumen ekonomiko, hego-  
alde eta iparraldearen arteko  
harremanak, arrantza, labo-  
rantza, enpresa eta kooperati-  
ben funtzionamendua eta abar.  
Ondotik, erabaki dugu forma-  
kuntza gisa elgarretaratzeko  
antolatzea Hemen-en gerizan.  
Iparraldeko ekonomia ezin ho-  
beki ezagutzen duen elkarte  
horrek gure inizatiba susta-  
tzea erabaki du.

#### Gazte langabetuen arazoa gizarte osoaren arazoa da



Tomas AZPIROZ  
Langabetua. Leitza

Egun gazteent-  
zat lana aurki-  
tzea zaila bada  
ere, eta emakumeekin batera  
langabeziaren arazoa gertuen  
jasaten duen talde nagusia gaz-  
teria izanik, ezin gaitezke to-  
piko horretan murgildurik bi-  
zi, lanik ez dagoen aitzakiare-  
kin beti kexu egonez, horrela  
ez baitugu batere aurreratu-  
ko. Langabezia gaurko gizar-  
te antolakuntzaren beste on-  
dorio bat denez, eta gizartea  
aldatu ezean beste bide batzuk  
aurkitu behar direnez, erron-  
ka horretan gazteriaz gain, lan-  
gilegoak ere badu zeresanik.  
Garbi dago gazteak ezin dua-  
la inguruko enpresen deia-  
ren esperantzarekin bizi beti, eta  
horrenbestez, esparru berriak  
ireki behar dituela arazoari no-  
la edo hala buelta emateko.  
Imajinazioak eta beharrak el-  
kar ulertu behar dute egoera,  
nolabait txukuntzeko. Horre-  
la, autoenpleguaz gain, beste  
alor batzuk ere ikuitzeko egon  
daitezkeela uste dut. Bestalde,  
ordu extrem gehiegizko kopu-  
rura salagarria da langabezia  
duen eraginagatik. Langile-  
goak ohartu behar du lana ba-  
natzeak duen garrantziaz.

#### Langabetua? Ez, enplegu bila



Jose Mari ARRAZTOA  
Soziologoa. Elizondo

Lan eskaintza  
guti dago eta  
zailtasunak ge-  
ro eta gehiago. Hala ere 'ba-  
tzutan' arazoa ez da lan falta,  
non edo nola bilatu ez ja-  
kilea baizik, eta hori segurtasun  
eta motibazio pertsona-  
larendako kaltegarria da.  
Lan bilatze prozesuan dau-  
den hiru zutabe nagusi aipa-  
tuko ditut. Lehenik, 'Helburu  
Profesionala' zehaztea. Hortarako,  
norberak bere ahalmen eta do-  
haiak definitu behar ditu, eta horrekin  
batera, dituen ikasketa eta  
esperientzien arabera nahia-  
go dituen lanbideak zehaztu.  
Bigarrenik, 'Lan Bilatze Tek-  
nika' desberdinak ezagutu  
eta menderatu behar dira;  
kurrikulum-ak, aurkezpenak,  
elkarrizketak... Azken-  
ik, aukeratu dugun sektore  
ekonomikoa ere sakonki eza-  
gutzu behar dugu. Azken fi-  
nean, lan bilatzearen lanak  
norbere burua ezagutzea es-  
katzen du, proiektu profesio-  
nal zehatza edukitzea, ongi  
planifikatutako estrategia eta  
pazientzia ausarki.  
Bistan denez, hau ez da erre-  
zeta magikoa, bainan tira...

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

#### LESAKA:

• Egutero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

#### IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



## BOTA BERTSOA



### Gazteak eta langabezia

**Jon SILVEIRA**

Neurria: Hamarreko haundia

*Gazteak badu Euskal Herrian hainbat eta hainbat arazo haietako bat langabezia egin zaidazue kasu sistema baten menpean gaude Estatua bere maixu altxa gaitezen sisteman kontra bai gazte ta bai guraso langabezia terrorismoa dela erranez jo ta su.*

*Leku askotan entxufismoa nola ari diren lantzen bestetan berriz despido aunitz ta inor ez da mugitzen. Zabor-kontratu bat egin zuten langabetuentzat hain zuzen ta ordu extrak kendu ezkerolan gehiago izanen zen Sistema ongi baldin badao ez nahiz deustaz enteratzen..*

### TTIPI-TTAPari

TTIPI-TTAParen hilbeltzaren 11ko zenbakian, Diario de Noticias-en argitaratutako nire artikulu baten zati bat agertzen da.

Zenbait urte daramat aldizkari eta egunkarietan idazten, batzutan eskualde hontako gaiei buruz, eta orain arte ez zait sekula gertatu TTIPI-TTAPak, niri ezer esan gabe, lan horiek erabiltzea. Gainera kasu honetan ukitutako gaia nahiko delikatu eta konplexua da, eta horregatik ez zait oso aproposa iruditzen barrik artikulua zati bat jartzea, bere osotasunaz jabetzea ezinezkoa da eta. Hala ere, gauza batek benetan harritu nau; nire izenaren ondoan 'Lesakako Udal Idazkaria' jarri duzuela. Nik, nire izen eta deiturekin soilik sinatu dut artikulua. Han jarritako eritziak guztiz partikularak dira, noski, eta ez dut ezertarako Udalaren izena erabili. Beraz, ez dut ulertzen zergatik TTIPI-TTAPak bigauza horiek nahasten dituen. Hori dela eta, ohar honen argitalpena eskertuko nizuke. Gure eskualderako TTIPI-TTAPA oso garrantzitsua da, nire ustez, eta horregatik kontu haundiena izan behar duzue idazteko momentuan.

Agur bero bat.

## IRAKURLEAK MINTZO

Elgorriaga, 1996ko hilbeltzaren 17an.

ANDONI ESPARZA LEIBAR



### TTIPI-TTAParen oharra:

Ohar hau, irakurle eta idazleei argibideak emateko asmoz idatzia dago, eta ez inolako polemika eta eztabaidan sartzeko.

Egia da, bildutako pasarte egilea jakinarazi gabe argitaratu dela, eta berez askoz ere luzeagoa den artikulu horretatik lerro batzuk baino ez direla bildu.

Jokabide hori, ordea, guztiz normala da prentsaren munduan, baita TTIPI-TTAPAn ere. Edozein egunkaritan daude horrelako pasarteak betekizun zehatz hori duten sailetan (hementekak, aipamen laburren zutabeak, e.a).

Egiaztatzen dugu artikulua izen-deiturez soilik sinatua zegoela. Halaxe egoten da aldizkari honetan argitaratu izan ditugun bertze hainbat kasutan ere, eta halere, jendea informazio horretaz hobeki jabetuko delakoan, TTIPI-TTAPAn pertsona horren lanbide edo karguaren berri emateko ohitura dugu hasiera-hasiatik.



### Itoizko urtegia: urteko balantzea

1995a garrantzia haundiko urtea izan da Nafarroako uraren gestio arrazionalaren aldeko borrokan, eta baita urtegi honen kontrako borrokan ere.

Madriko Audiencia Nazionalaren sententziak partaren kontra jarri ditu Madril eta Iruñeko Gobernuak. Hauen erantzuna, ordea, sententziaren edukia manipulatu izan da, gizaritari proiektuak 'forma akatsak' baino ez dituela sinestaz eta legeak aldatuz arazoa moldatua dagoela ondorioztatuz.

Sententziak Ebroko Ur Konfederazioko makinaria burukratikoa ere jarri du martxan, eta orain arte geldirik zegoen Plan Hidrologikoa martxan jarri nahirik dabilta orain aldeko koiuntura aprobetatzeko. Horretarako beharrezkoa den bideragarritasun plana, ingurugiro inpaktoarena eta ondorio sozialen azterketak, ordea, egin gabe segitzen du.

Urtegiaren kontrako mobilizazioek ere aurrera egin dute. Ezin gauza bera esan instituzioetatik bultzatutako mobilizazio 'teledirigituari' buruz.

PATXI GORRAIZ ETXAMENDI  
ITOIZKO KOORDINAKUNDEA



ZIALDO estatua

LESACA

## Gida 96



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Erabiltzeko erraxagoa eta goitik behera gaurkotua.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Irutxulo 95-XII-22

«Aitak animatu ninduen eta hauxe da nere suertea: pozez betetzen nauen lanbidea hartu nuela. Donostiara etorri nintzen ikastera eta Etxalarren jarri zidaten ileapaindegi zoragarri bat»  
**M<sup>a</sup> Jesus ETXEBERRIA**  
 Etxalarkoa.  
 Ilepaintzaile Donostian  
 Irutxulo 95-XII-22

dugu, baita bertakoa dena bultzatu ere»

**Jesus GARCIA** eta  
**Gregorio ELIZETXE**  
 Lekarozko Larralde  
 sagardotegikoak  
 Diario de Noticias 96-I-14

«Elizondoko gazteek zer egin ere ez dakite, inor ez baita gazteriaz arduratu, ezta euren gurasoak ere»

**Ana Mari MARIN**  
 Elizondoko alkate-juradua  
 Nafarkaria 96-I-19

«Kalitatea duen produktu bat egin nahi

- ◆ **'Bakalao' dantzatzen duzu?**
- ❖ Dantzatu ez, saltsan prestatu bai.
- ◆ **Nor duzu gustokoena, Antonio Banderas edo Imanol Arias?**
- ❖ Imanol Arias.
- ◆ **Zein da zure saltsakari gustokoena?**
- ❖ Baratzuria.
- ◆ **Nora joanen zara oporretarat?**
- ❖ Lanzaroterat.
- ◆ **Bezeroek zer eskatzen dute gehiago, haragia edo arrainkia?**
- ❖ Haragia.
- ◆ **Norekin pasatuko zenuen asteburu bat 'Maria Cristina' hotolean?**
- ❖ Nere gizon maitearekin.
- ◆ **Gehien gustatu zaizun filmea?**
- ❖ 'El guardaespaldas'.
- ◆ **Bikote batek irauteko sekretua?**
- ❖ Komunikazioa eta amodioa.
- ◆ **Zer iduritzen zaizu zure nagusia?**
- ❖ Ongi ezagutu behar da...
- ◆ **Zein kolore duzu gustokoena?**
- ❖ Arroxa kolorea.
- ◆ **Gelditzen ote da sorginik oraindik?**
- ❖ Bai noski! ni naiz bat.



**Ana Mari AGERRALDE**  
 Zugarramurdiko Altxatenea  
 jatetxeko langilea

**BOTXO**  
**ostatua**

Tfnoa: 63 00 52  
 Zalain Auzoa, BERA

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK  
 Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



Altxate, 19 • 630786 • BERA

**PIKABEA**  
*platarak*


Lehen Molinero  
 izandakoak

**Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
 Tel.- Fax: 948. 63 10 27



Bera

## Herriko zeharbidea moldatzeko proiektua ia 4 milioi gostako da

Bidasoa karrikatik hasi eta Lizuniagarako errepidera arte moldatzeko proiektua Patxi Txokarrok egingen du

KRISTINA BOAN

Patxi Txokarro arkitektoak egingen du Bidasoa karrikatik hasi eta Lizuniaga alde-rako errepidea moldatu eta hobetzeko lanen proiektua.

Txokarrorena izan zen Udaletxera aurkeztutako hiru proposamenen artean onena. Udalak, hasierako prezioa 4 milioi t'erditan finkatu bazuen ere, proiektua 3.712.000 pezetatan egiteko prest azaldu da arkitektoa. Lana lau hilabetetan akautu beharko du, maiatz alderako, eta udalaren eta Nafarroako Gobernuaren artean ordainduko zaio.

### AGERRAKO BANDAK KENTZEKO ESKARIA

Bertzalde, Bidasoa karrikan Agerra auzoko semaforoen inguruan dauden bandak kentzeko eskaria jaso du udalak. Jendea jakinaren gainean paratzeko bandoa plazaratu du Herriko Etxeak, norbaitek honi buruz alegazioren bat aurkeztu nahi izanez gero. Banda horiek, ko-txeen abiadura jeisteko paratuak daude erre-pidean.



Berako bi bikote Burlatako Axular pilota txapelketan txapel-dun suertatu dira: Infantiletan, Gorka Irazoki eta Ivan Zubieta, eta benjaminetan, Markel Etxebeste eta Julen Irazoki. Argazkian, Luis Pikabea irakaslearekin batera ageri dira Josetxo Lizartza kazetariak eta Ruben Beloki pilotariak ezarritako txapelak jantzi ondotik.

### Basurde eta erbi ehizi denboraldia bukatu da

Berako Ehizi eta Arrantza elkarteak akaututzat eman du aurtengo basurde eta erbi ehizi denboraldia. Igande honetan, hilaren 28an bukatuko da denboraldi osoa. Oila-gorra egunero ehizatu ahal izanen da eta faisaia, asteburuetan.

Ehiztarien erranetan, ehizi denboraldia positiboa izan da, 27 basurde eta 25 erbi bo-

ta baitira herriko mendietan. Halere, alde negatiboari begiratu, badirudi aurten ere furtiboak 'lanean' aritu direla eta ezin jakin hauek zenbat ale bota dituzten.

Basurde eta erbi ehizi denboraldiaren bukaera aitzintzearekin, bizirik gelditu diren animaliak bertan laketu eta umatzea nahi omen dute ehiztariek.

### Musika eskolako irakasle berriak

Isidoro Fagoaga musika eskolak irakasle berriak izendatu ditu. Akordeoia-solfeoa erakusten Lourdes Iza arituko da. Piano-solfeoa irakaslea, berriz, Maria Jose Bergara izanen da, Fermin Garcia zinegotziak eta musika eskola zuzentzen duen batzordeko lehendakariak adierazi duenez.

ttipi-flash

### Bortzirietako euskaltegiak

otsaileko matrikulazio epea ireki du otsailaren 9a arte. Maila guztiak ematen dira baita literatura eta administrazioarako euskara teknikoak ikastaro bereziak ere.

### Dantza ikastaroetan

izena emateko azken eguna larunbat hau, urtarrilaren 27a izanen da. Frontoian apunta daiteke eguerdiko 12etatik 1etara, bortz urte beteak izanez gero. Bertzalde, helduek jota eta porrusalda ikasten ari dira ortzegunero, frontoian arratseko 8etan.

### Kaldereroen entsaioak

Otsailaren 7, 8 eta 9an burutuko dira Iamotenean aurtengo inauterietarako kaldereroen entsaioak. Arratseko 8etan hasiko dira eta atera nahi duenak zartagia, kutxara edo panderetarekin agertu beharko du.

**SAROB**  
okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



**ZALAIN**  
JATEXEA

EGUNEKO MENUJA ETA KARTA

Zalain Auzoa  
© 63 11 06  
**BERA**

**Boda eta banketeak ematen dira**



**Lesaka**

## 22 langile etorri dira dagoeneko Sestaotik Lesakako fabrikara

Ordain gisara, gaur egun dauden langile ebentualak fijo egitea eskatuko diote sindikatuek CSIko zuzendaritzari

AITOR AROZENA

Urtarrilaren 8an, Eguberrietako oporren ondoko lehendabiziko produkzio egunean, Sestaotik etortitako 22 lagun lanean hasi ziren herriko CSI-Transformados lantegian.

Honek eragina izanen du fabrikan ari diren aldi bateko langileengan eta, ondorioz, gazteek lana lortzeko zailtasun gehiago izanen dituzte oraindik.

### EBENTUALAK FIJO EGITEA NAHI DUTE SINDIKATUEK

Eragin kaltegarri hauen ordain gisara, fabrikako sindikatu nagusiek gaur egun dauden aldi bateko 200 langileak fijo egitea eskatu diote CSIko zuzendaritzari. Honetaz gain, LABek Alkaia-gako industrialderako inbertsioak eskatu dizkio Nafarroako Gobernuari. ELAk, bere aldetik, instalazio eta produkzio prozesurako egiten ari diren inbertsioetaz gain, langilegorako inbertsioak egitea eskatu du.

Izan ere, CSIko plan estrategikoaren arabera, 4.037 milioi pezeta inbertituko dira Lesakako fabrikari.



San Anton egunean eta igande honetan erromeri giro ederra izan da izen bereko auzoan. Urteik urtera gehiago dira bisitan joaten direnak, bai Lesakatik baita inguruko herrietatik ere

Argazkia: Karmele

### CSI LANTEGIKO ISURKETAK AZTERTZEKO BATZORDEA

Bertzalde, CSI-Transformados lantegiak errekaratzen dituen isurketen inguruan neurriak hartzeko batzorde bat osatu da udalean, Osasun Komisioaren barnean. Batzordea PNVko Juan Fermin Mitxelena, EAko Severiano Txoperenak eta HBko Carlos Santiagok osatzen dute. Neurriak hartzeaz gain, hauek betearaztea izanen da hauen betebeharra.

### Andoni Sarasola intsumisota atxilotua eta kartzeleratua

Andoni Sarasola intsumitu lesakarra urtarrilaren 15eko arratsaldean atxilotu zuen guardia zibilak bere etxean. Andoni duela 20 hilabete epaitu zuten, 1994ko maiatzean, baina orain arte ez ziren bere bila etorri. Lehenik Berako kuartelera eraman zuten eta bertan zela hainbat lagunengan bisita jaso zuten. Beratik Iruñeko kartzelera eraman zuten. Bere askatasuna eskatuz eta intsumisoeki-



Andoni Sarasola intsumisota

ko elkartasuna adieraziz hainbat mobilizazio egin ziren joan den astean herrian.

*ttipi-flash*

### Bortzirietako euskaltegiak

otsaileko matrikulazio epea ireki du otsailaren 9a arte. Maila guztiak ematen dira baita literatura eta administrazioarako euskara teknikoak ikastaro bereziak ere.

### Hiltegi

zaharra hagitz egoera txarrean dago aspaldi honetan. 'Ruina egoeran' izendatu ondoren, 1.275.797 ptako aurrekontua du etxea botatzeak.

### Senideak

Preso eta errefuxiatuen senideen erakundeak aurkeztutako mozioa ez zuen onartu udalak PNVren kontrako botuarekin. Alkatearen ustez, Herriko Etxea ez da hori eztabaidatzeko lekua.

### Futbol-zelai berria egiteko

lehen pausuak ematen ari direla dirudi. Berriki, Nafarroako Gobernuak ordezkariek Kristo-Enea bisitatu dute eta %20ko subentzioa emateko prest azaldu omen dira.

Plaza Berria, 10 - 637335

LESAKA

**Garbi - Leku tindategia**

Arropak, larrua, tapizak... garbitzen ditugu

**BEREAU**

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean

Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



**ORBELA**

gimnasioa

Squash • muskulazioa • sauna

637950 • LESAKA





# Zerri hiltzea gutitzen ari da urtetik urtera

Aurtengo negu epela ez da hain egokia zerrikia kontserbatzeko

PELLO ETA ALBERTO

Zerri hiltzea neguko gertakizun berezietakoa izaten zen etxe gehienetan, eta ez hain aspaldi. Bizimodu aldaerak, ordea, ukitu du ohitura hori, bertze hainbat gauza bezala. Ez da zerririk lehen bezala gizentzen, ez da astirik zerri hiltzeak dakarren lana egiteko, sosaz erostea erosoago eta errazago bilakatzen zaigu, zerrikia jan ere, behar bada, ez da hainen aisa jaten. Hiltzailea etxeratzeko ere ez dago aukera gehiegirik. Etxalarren gaur egun hiltzen diren zerriak lehengo kopuruaren erdira ere ez dira hurbiltzen, noski.

## Larraburuko mus txapelketa akautu eta partxisa hasi

Urtearekin batera bukatu da Larraburua Elkarteak antolatzen



Larraburuko mus txapelketa lehen lau lekuetan sailkatutakoak, beren sariekin. Antonio Ameztoui eta Candido Egurtze izan dira aurtengo txapeladunak.

duen mus txapelketa. Urte berrian, Errege egunean justuki, sariak banatu, eta dagoeneko bertze txapelketa sartuak daude, partxis txapelketa.

## Inauteetan pentsatzen

Urteberriko besta eta opor egunak joan berriak eta Inauteetarako prestatzen hasiak dira. Haurrak eta hel-

duak, behinpehin, lanean hasiak dira. Izan ere, egun batzuk bertzerik ez baitira falta Inauteetako bestetan sartzeko.

## Ameriketarako bidaiak

Duela urte guti arte, Ameriketara milagrozo joaten zen jendea, lanera edo han gelditzeko ez bazen. Hemengo lan eskasiak

eraman zituen, bai, eta aunitz gainera, itsasoz bertze aldera. Dena den, guti itzultzen ziren. Azken urteetan, ordea, ugaritzen ari dira joan-etorriko bidaiak, hamabortz egun edo hilabeteko joan-etorriak. Ezkontza ondoko ibilaldia dela, udako oporrak direla, edo eta senideak edo ahaideak ikusi nahiak

bultzatzen du jendea itsasoa zeharkatzera, gazte nahiz heldu eta adinekoak. Hondarreko hiruzpalau urteetan, bereziki, herriko bi edo hiru etxe baino gehiagokoak hartu du aireplanoa, eta aurrean sumatzen dira, dagoeneko, udaberri eta udaldean Ameriketara joateko asmotan dabilzanak.

# EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago

Bittiria, 67 - © 637264



# HERRIKO OSTATUA

## Jatetxea

© 635290  
ETXALAR

*Lagun artean  
gora-gora egoteka  
leku egokia*

# XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

# Deñe

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14  
Beheko Plaza 8, LESAKA



**Igantzi**

# Hamabortz neska-mutilek eman dute izena bertso eskolarako

Joan den aste ondarrean hasi zen Biltokiko mus eta partxis txapelketa

OSKAR TXOPERENA

Joan den astearte-an, hilbeltzaren 23an, zen egitekoa bilera Igantzin emanen den lehendabiziko bertso ikastaroa antolatzeko. 15 neska-mutilek emana dute izena bertan parte hartzeko eta egutegi eta ordutegiak lehen aipatutako bileran ziren erabakitzeak.

Udaletxeak, bertzalde, Euskara Man-komunitatearen eskaria hartu du, ikastaroa aintzineramaterako leku aproposa utz diezaien (eskolan izanen da seguraski).

## Mus eta partxis txapelketa

Martxan da dagoneko neguro Biltokiel-



Eguberri aitzinetik despaditu zuten haurrek Esperantza Andereñoa. Heldu den igandean, berriz, Guraso Elkarteak prestatutakoa jasoko du

Argazkia: Oskar TXOPERENA

karteak antolatzen duen mus eta partxis txapelketa. Joan den aste ondarraz geroztik lehiari ditugu 12 bikote musean eta 9 par-

txisean, aintzineko urteetan baino zenbait gutiago.

### Iñauteak

Ez dugu antolatzailerengandik berri-

hartu, baina aditu dugunez, aurtengo iñauteak otsailaren 9 eta 10ean izanen omen dira. Has gaitezen moztorroak prestatzen, ha-

gitz denbora guti falta da eta.

## Senideak-en mozioa onartua

Herriko Etxeko azken plenoan, bertze gauza aunitzen artean, 'Senideak' euskal preso eta errefuxiatuen senitatekoen erakundearen mozio bat onartu zuen gehiengoz Udaltzatzak, PNVko zinegotzi baten abstentzioarekin.

Mozioan, Senideak erakundeak euskal presoan oinarritzko eskubideak errespetatu daitezkeen eskatzen du, legeak dioena kunplutuz, bertzerik gabe.



Lore eta landareak  
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26  
LESAKA

# OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
LESAKA



## 24 ORDUKO BUS ZERBITZUA

- 17 jarlekuko mikrobusa
- 55 jarlekuko autobusa
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

## J. RAMOS

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut

☎ 631342 BERA • ☎ 637172 LESAKA

## TXARANDAKA Tailerrak

Otsailean erakusketa berria zabalik

**GAS GAS** motoak

Husqvarna  
BOSQUE & JARDIN

**Jonsered**

Bidasoa 50 • ☎ 630589 • BERA

erakusketa  
eta  
salmenta





# Errege eguneko arpana apostuan bikotea nagusitu zen

Santaketan ibilitako gazte kuadrilla, bertzalde, larunbat honetan bilduko da gerora zer egin erabakitzeko

GARBINE ETA ELIXABET

Errege egunean arpana apostua izan zen frontoian, Juanito Banana, Jesus Mari Lukanbio eta Oskar de Ruedaren aurka. Juanito Bananak 80 korte eman behar zituen eta Oskar eta Jesus Marik 40na korte. Juanitok bi kortez galdu zuen, bainan jendearen iritiz bikoteak ez omen zuen hagitz apostu legala egin. Bertzalde, Donato Larretxeak 25 minutuz hiru metroko buelta zuen enborra moztu zuen aizkorarekin.

## Santaketan

Abenduaren 29an eta urtarrilaren Sean herriko gazte koadrila bat etxez etxe ibili zen santaketan. Abendua-



Erregeak pozez gainezka paratu zituzten herriko haurrak. Eguraldi txarra zela eta ezin izan zuten zaldiz etorri

ren 29an Aientsa, Azkilarrea eta Bordalarrea auzoan ibili ziren eta Errege bezperan, berriz, Eguzkialdea eta herrian ibili ziren. Eskean aritu zen taldeak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei izandako portaera onarengatik.

Bertzalde, parte hartu zuten guztiei urtarrilaren 27an arratsaldeko 5etan Zuzainea ostatuan egingen den bilera baterako deia luzatu zaie. Bertan, bildutako diruarekin gerora zeregin eta bertze hainbat puntu lantzeko asmoa dute.



Santaketan ateratako neska-mutil kuadrilla hagitz gustora agertu da jendeak izandako portaera onarekin

Argazkia: Elixabet

## Eskiatzetik bueltan etorri dira eskolako neska-mutikoak

Eskiatzera joan ziren eskolako 6., 7. eta 8. mailako neska-mutikoak arrunt pozik bueltatu dira. Hagitz ongi pasatu omen dute, nahiz eta elur gutti izan.

Bertzalde, lurrean barna txutik baino denbora gehiago pasatu izanen dute seguraski, izan ere denak gripearekin etorri baitira. Hurrengorako hobeki ikasiak joanen dira.



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak  
Angeluak  
Orma antzinak  
Leihoak  
Ateak  
Arkuak  
Pilareak

Tximiniak  
Erlaizak  
Moldurak  
Zokaloak  
Hilarriak  
Marrazkiak

"Abajardadon" Mazizoa  
Zabur antzekoa Tsapentzia

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



ALBERGIA  
JATETXEA

© 634179  
ARANTZA




© 631076 • BERA

**BLANCO ANAIK, S.L.**  
MARMOL eta GRANITOK  
Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerria  
BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052  
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bitirio LESAKA  
☎ 627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza



## Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

Familiakoren bat edo lagun bat hiltzen bazaizu **ttipi-ttapa** eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

© 63 11 88





# Nafarroako Gobernuak 12 milioi emanen ditu frontoia konpontzeko

Aurrekontuaren hirutik bat bertzerik ez denez, %70eko dirulaguntza eskatu du berriz Udalak

IXABEL ETA JOSUNE

Pilotalekua konpontzeko dirulaguntza eskariari buruz Nafarroako Gobernuak bidalitako idatzia aztertu zuen udalak azken batzarrean. Subentzioa 12 milioi pezetakoa izanen da, hau da, aurrekontuaren hirutik bat. Herriarentzat diru horrekin konponketa egitea posible ez denez, %70eko laguntza beharko duela adierazi dio Nafarroako Gobernuari.

Kultur eta Kirol zinegotziak udalaren asmoa jubilatuekako lokala eta hitzaldiara artoa egitea dela adierazi zien Nafarroako Gobernuko ordezkariari eta badirudi ados gelditu zirela.



Joan den urtean egindako txapelketaren sari banaketan, alkatea Jose Luis Urtxulutegi doneztebarrari -Sunbillako taldeko atezaina- saria ematen. Ezkerrean, Mikel Maia antolatzailea.

## Herriko hirugarren futbol-sala txapelketa hasi da

Urtarrilaren 13an hasiera eman zitzaion III. futbol-sala txapelketari Doneztebeko frontoian, Sunbillakoa itxita baitago ihaute-riak pasatu arte. Otsailaren 2tik aitzina

Sunbillako frontoian jokatu dira partidu hauek.

Hamaika talde arituko dira: Basaburua, Biok Benta, 12 ostalua, Ulibeltzak, Yugoslavia, Titi ostatua, Baz-

tango Gazte, Burrenba, Elgorriaga, BKZ eta Xanpale. Aurten herriarrak talde bakarra osatu dute, Ulibeltzak taldea, honako jokalarri hauekin: Rafa, Alfredo, Enrike, Xanti

M., Xanti A., Asier, Jabier, Iñaki, Mikel eta Joxe Bixente. Lehenbiziko partidua sunbildarrak 4-3 irabazi zioten Baztango gazte taldeari, nahiz eta 2-3 galtzen egon.



Ezkontza Erreportaiak, Argazkiak Estudioan eta Etezez etxe, Karnet Argazkiak momentuan Argazki Kamara aukera haundia: Nikon, Pentax, Goko, Kodak, Fuji, QSS Pelikulak; t/b, kolore eta diapositibak: QSS, Konica, Agfa, Fuji, Ilford... Argazki Erreproduktzioak, Albulak, fotokopiak, Enkuadernazioak, Agirien Plastifikazioa, Fax Zerbitzua, Markoak eta Moldurak

NAGUSIA 4 - TEL-FAX: 45 08 25 31740 DONEZTEBE

SANTIAGO 40 - TEL: 58 01 55 31700 ELIZONDO



## AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



## MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

## Andregaiak eta amautxiak

Jantziak neurrira eginak  
M<sup>a</sup> Nieves • 943-627977 • IRUN  
*Euskaraz badakigu*

## DONEZTEBE AKADEMIA

**Klaseak ematen dira**

- OHO, FP, BUP, REM (maila guztiak)
- Mekanografia

*Badakigu honen beharra dugula*

Parrokia 10, 3. • ☎ 450326  
DONEZTEBE



**Doneztebe**

## Abesbatza egin nahian 40 lagun elkartu dira

Momentuz zenbait ahots froga egiten ari dira, astelehen eta ortziraletan bilduz

TXEMA ALDABE

Herriko 40 lagun, hamar eta berrogeita hamar urte artekoak koro edo abesbatza osatu nahirik biltzen hasiak dira. Astelehen eta ortziraletan egiten dituzte entsaioak Doneztebeko eskolan, musika irakasle baten ardurapean.

Gauza gehienetan bezala, gehienak emakumeak dira eta gizaseme gehiago nahiko lukete, zazpi bertzerik ez baitira. Oraingoz ahots eta gainerako frogak egiten ari dira, baina koroa osatu ahal izanen dute.

### Etxebizitza zainduak

Amezi ondoko belagian, bestetan betizuak ateratzen diren tokian, alegia, Doneztebeko udalak etxebizitza zainduak egin nahi dituela ez da gauza berria. Lur zati hori Doneztebe, Oitz eta Dona-



Langarra Ttikik antolatutako lehiaketan sariak herriko liburutegian banatu ziren. Guztira 120 lan aurkeztu ziren, gehienak ipuin eta marrazkiak.

Argazkia: TXEMA

mariako udalena da. Nahiz eta Doneztebe eta Oitz pisuak egitearen alde egon, Donamariakoa ez dago honen alde. Donamariako udalak, bertze arrazoiaren artean, nahiago du jendea herrian bertan gelditzea eta ez kanpora joatea, herri tikiak hustutzen joateko arriskua baitago.

### N-121 errepideari buruzko mozioa

Alfredo Zugarramurdik aurkeztutako mozioan, "Bera, Igan-tzi, Arantza, Lesaka, Etxalar eta Sunbillako udalek Nafarroako Gobernuari Bera-Behobiako karretera lehenbaitlehen moldatzea eta behar diren tunelak (Larrakaitz, bertzeak bertze) egitea eskatzea" zioen,

gainerakoan zonaldea inbertsioetatik baztertuta gelditzeko arriskua ikusten baitzuen. EAKo zinegotziek kontrako botua eman zuten. Inbertsioetatik kanpo gelditzeko arriskua gezurra dela adierazi zuen alkateak, honez gero Nafarroako Gobernuarekin gai hone-taz solastua baita.

ttipi-flash



### Pilar Garro

herriko amatxia 102 urte zituela hil zen abenduaren 16an Oteiza auzoko Etxegorri etxean. Sortzez Sunbillako Arretxekobordakoa zen Marcelino Mingegiaren alarguna.

### Jubilatuaren egoitzan

zenbait moldaketa egiteko ia 1.100.000 pezeta jaso ditu jubilatutako elkarteak Nafarroako Gobernuako Ongizate sailetik.

### Larunbat gauak

ezin dira aipatu gabe utzi, herritarren kejak goiti doazelako. Orain arte gaueko arrotua eta autoen bozina normaltzat hartzen baziren, gauzak gero eta makurrago joan dira. Ebasketak autoetan, ispilu eta antena xeheak...



Asteburuetan  
kontzertuak

Bokadilloak  
eta pintxoak

San Migel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan) • © 450991 • DONEZTEBE

**IBARROLA** %30  
**DESKUENTOAK** %40 %50

**ARTIKULU  
GUZIAN**

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE



**SANTAMARIA  
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**Malerreka**

# Ituren eta Zubietako iñauteriak egunotan ospatuko dira

Ortzegunean zekorra hilko dute Iturenen baina urtarrileko azken astelehen eta astearta izanen dira egun nagusiak

IBAN ETA AINHOA

Iñauteriak begi aurrean ditugu. Aurten ez da nobedade haundirik izango, urterokoa nahiko bitxia da eta. Musika, dantza, kanpotarrak bisitari, janari otorduak, parrandak, joaldunak, mozorroak, karrozak...

Iturenen ortzegun honetan hilko dute zekorra. Urtarrileko azken astelehena eta astearta izanen dira, beti bezala, besta egun nagusiak eta hainbat bisitari espero dira bi egunotan. Astelehenean Zubietako joaldunak joanen dira Iturenera bisitan eta biharramonean Ituren eta Aurtizkoak Zubietara joanen dira bisita bueltazera.



Zubiak bezalaxe, Ituren eta Zubietako auzoak elkartuko dituzte joaldunek iñauterietan

Argazkia: Nafarroako Iñauteriak

Iturenen otsailaren 3an kontuen eguna izan-

nen dute eta akitutzat emanen dira, aurten-

goz, iñauterietako ospakizun berexiak.

## Zubietako istorio zaharren liburua

Zubietako istorio zaharren aldizkaria argitaratu da. Etxez etxe banatuta gero, ostaturan eraman ziren interesa zuen guztiak harrezan eta dagoeneko bukatu dira. Beste edizio bat atera beharko da, denentzat ailega dadin. Adineko jendearen kontakizunak eta argazkiak ageri dira.

## San Anton

San Anton eguna pasatu zen. Goizean, mezaren ondotik gosari goxo-goxo bat eskaini zuen serorak. Arratsaldez, berri, gozoz dantzatu genuen udalak ekarritako musikarekin.

**BELARRA**

Ostatu Jatetxea

Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE

**MENDAUUR**  
disco-bar

Kontsejo karrika • ☎ 450573 • ITUREN

AVRTIZKO  
OSTATVA



JATETXEA

OSTATVA

TABERNA

☎ 948-450477  
ITVREN • NAFARROA

**ORMAETXEA**  
**OKINDEGI-OSTATUA**

*Ongi pasatu iñauterietan!*

Tfnoa: 45 01 69 • ZUBIETA

**ETXANDI TXOKO**  
erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN • Tfnoa: 45 04 91



☎ 948-451771



**120 lan aurkeztu ziren Langarra Ttikiren lehiaketara**

**TXEMA ALDABE**

Arrakasta handia izan zuen Langarra Ttikik egindako ipuin, marrazki, bertso eta txiste lehiaketak 120ren bat lan aurkeztu ziren -gehienak ipuin eta marrazkiak-, adinka hiru mailatan (8-9 urte, 10-11 eta 12, 13 eta 14 urtekoak) banaturik.

Sari banaketa hiltzaren 4ean egin zen Doneztebeko liburutegian eta epaimahaikideak aritu ziren banaketan, Txomin Míndegia, Jabier Juankorena eta Marga Erdozain, hain zuzen ere. Txistetan Ainara Míndegiak irabazi zuen eta bertsoan Legasako Joana Oteizak. Marrazkitan, 8-9 urtetan Sunbillako Imanol Apeztegia, 10-11 Sunbillako Mirian Maritxalar eta 12tik 14ra Doneztebeko Pilartxo Mitxeltoarena. Ipuinetan, 8-9 Sunbillako Aintzane Ibarra, 10-11 Doneztebeko Xabier Juankorena eta 12-14 Doneztebeko Bea Ostolaza.

Aipatu behar da partehartze handia izan dutela Legasa, Sunbilla eta Doneztebeko sei garren mailako neska mutiko gazteak.

**LANGARRAREN BATZARRA**

Langarra elkarteko kideak larunbat honetan, urtariralen 27an, eguerdiko 12etan elkartuko dira Saldiasko ostatuan. Bertan bazkalduko dute eta arratsaldean eztabaida izanen da gai ezberdinetaz.

**Eratsundar bat Zubietan istripuz hila**

Getari izenez ezaguna zen Juanito Iruretagoiena eratsundarra hiltzaren 10ean Doneztebetik etxera ilobarekin zoaiela Sareko zubian autobus bat jo eta hilik suertatu zen. 74 ur-

te zituen eta pilotazale amorratua zen.

Berriz ere Doneztebetik Leitzarako karreterak duen arriskua aipatu behar da, batez ere, kamioi eta autobusekin topatzeko orduan, toki

frankotan ez baitago gurutzatzerik. Duela denbora gutti Zubietako udalak inguruko herrietan mozioak sartu eta bidea moldatzea eskatu zion Nafarroako Gobernuari.



Juanito 'Getari'

P.A.C. 96

**CAJA RURAL DE NAVARRAren "AZALERA ETA AZIENDENDAKO LAGUNTZA" ZERBITZUA**

**LEHEN SEKTOREA LAGUNTZEN ESPEZIALISTAK**









**'Azalera eta aziendendako Laguntza'** zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarra zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorrena eskeintzen dizu. **E**ior zaitez Caja Ruralera eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

*1996-1997 Komertzializazio Kanpainarako Azalerengatik Laguntza Eskaria (1996ko uztak), 1996ko azienda sariak eskuratzeke bazkalekuen deklarazioa*

*eta ardi, ahuntz eta behi haragi produktoreendako eta 1996rako behi amak mantentzen dituztenendako Laguntza Eskaria.*

**LAGUNTZA ESKARIA**  
ORAIN BAITA **ARDI, BEHI**  
AMA ETA ARETZE  
LAGUNTZENDAKO ERE



**CAJA RURAL DE NAVARRA**



**Goizueta**

## Euskal presoen dispertsioaren kontrako mozioa onartu zuen Udalak

Bestalde, orain dela ehun urte euskaraz idatzitako herriko ordenantzak Euskaltzaindiaren esku utziko dira

ESTEBAN AROZENA

Senideak, euskal preso, errefuxiatu eta deportatu politikoen senitartekoen erakundeak aurkeztutako mozio bat onartu berria du korporazioak.

Euskal Herrian presoak biltzeko eskakizuna udalak berretzat hartzea eskatzen zuen Senideak-ek. Baita inolako txantaiarik gabe preso guztientzat baldintzapeko askatasunaren berehalako aplikazioa ere, bereziki gaixotasun larriak izan edota zigorraren hiru laurdenak bete dituztenei. Azken kasu honetan, legeak agintzen duena beteko ba-



Babes ofizialeko hemezortzi etxebizitzaren eraikuntza hasi du dagoeneko Jose Cerain, S.A. enpresak. Orain artekoa baino azkarrago joango ahal da behintzat hemendik aurrerakoa.

litz, ia 100 euskal preso dagoeneko kanpogan egon behar omen lukete, Juan Miguel Apezetxea herritarra hauen artean.

### Ordenantzak Euskaltzaindiari

Orain dela hilabete batzuk Herriko Etxean agertutako euskaraz idatzitako ordenantza

zaharrek sortu zuten interesaren berri eman genuen lehen orri haue-tan. Orain, duela 100 urteko testu hori Euskaltzaindiaren esku uz-

tea erabaki du Udalak, zehazki erakunde honen Nafarroako ordezkaria den J.M. Satrustegiren esku. Honek, 'Fontes Linguae Vasconum' aldizkarian argitaratuko omen du.

### Futbito txapelketa

Umore Ona elkar-eta udalaren elkar-lanaren esker, herriko futbito txapelketaren edizio berri bat haste-ar dago. Talde bakoi-tza, gehienez hamar kidez osatua egongo da, taldeko 10.000 pe-zeta ordainduko dute-larik txapelketa hasi aurretik. Partaide guz-tiak elkartuko dituen afari batekin bukaera emango zaio urteroko lehia gogor honi.

## Maila haundia erakusten ari da herriko sokatira taldea

680 kilotan hirugarrenak gelditu dira



**Sokatira taldeko mutilek ahalegin guztiak egin zituztela ezin da ukatu**

Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

ria izan zen, lehen tiraldia 4' 03" eta biga-

rrena 2' 13"koa. Azken tiraldian, aresoarrei

Sakanaren kontra tokatu zitzaieci eta hor na-

baritu zen aurreko tiraldien nekea. Hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuten aresoarrek. Pake-Toki elkarteko bazkarian 110 lagun bildu ziren.

640 eta 600 kilotan 2. postua lortu zuten Beti Gaztetik puntu batera. Lesakarrek tiraldi luze eta gogorrik izan zituzten. Momentuz, lesakarrek esperientzia eta teknika gehiago dute, baina urtez urte gehiago ikasten ari dira herritarrak.

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Aresoarrak lan bikaina egiten ari dira Nafarroako sokatira txapelketetan. Kategoria guzietan lehiatuko dira. Dagoeneko hiru pisuetan parte hartu dute, 680, 640 eta 600 kilotan, hain zuzen. Leitzan ospatu zen lehen ihardunaldian, lehia nagusia Beti Gazte eta aresoarren artean egon zen. Hirugarren txanda ikusga-



Leitza

# Larunbatetik asteartera luzatuko dira aurtengo Ihotek

Egunero musika izanen da eta igandean IKAk antolatutako bertso eta txiste saioa eta bertso afaria

JOSEBA AZPIROZ

Larunbatean herrian atsoguratuta eginen den eskearekin hasiko dira aurtengo ihotek. 6etan kuartelaren aurrean intsumisioen parodia izanen da eta 9,30etan atsoguratuen afaria eskoletan intsumisioek antolatuta. Gaueko 12etan kontzertua Torrean.

Igande goizeko 11etan Leitza eta Azpeitia arteko pilota partiduak. Arratsaldeko 7etan bertso eta txiste saioa izanen da zinean IKAk antolatuta. Lizaso, Egaña eta Jon Sarasuarekin batera, Jose Mari Hernandezena, Juani Barriola eta Xabier Arraras arituko dira. Ondoren bertso afaria Torrean.

Astelehenean goizeko 9etan aterako dira eskean Gorritzarán, Erreka eta Arkiskilera. Bueltarakoan bazkaria Aurreran. Arratsaldez parke mugikorra izanen da frontoian.



HBk harrobiei buruzko jarrera azaldu du prentsaurrekoan. Alkatea eta herriko batzordeko Inma Zestaurekin batera Xabi Otero izan zen Egin

Asteartean Erasotera joanen dira eskean. Eguerdian umeen kalejira Incansables txarangarekin eta Aurreran bazkaria. Umeak eskolatik plazara atso-guretuta joanen dira eta bertan txokolatada eta bonba japoniarrak izanen dituzte. Egunero Incansables arituko da eta igandetik asteartera plazan musika *Etzakit* taldearekin.

## Harrobiei buruzko kontsulta eginen da herritarren artean

Aurreko ostegunean Udala aparteko batzar batean bildu zen, harrobien arazoaz herri kontsulta egin edo ez erabakitzeko. Zinegotzi eta jendearen arteko ordu t'erdiko eztabaidaren ondoren, talde bakoitzak bakarka hitzegin ahal izateko, batzarrea gelditu

zen. EA kontsultaren aldeko botoa eman zuen, "erreferenduma egiteko modua, 11 zinegotzien gehiengoa errespetatuz erabakitzen bada". HBk puntu hau onartu ondoren, EA eta HBren aldeko botua jaso zuen kontsulta egiteak eta UILk kontra botatu zuen.

ttipi-flash

### Euskal Kantu Jaialdia

antolatu du kultur taldeak otsailaren 17rako. Zinean eginen den saioan leitzarrek soilik parte hartu ahal izanen dute, bakarka, binaka edo taldeka. Izena emateko epea otsailaren 10a arte da, Astiz edo Maimurren.

### Euskal Herria Askatu

konzentrazioarako deialdia luzatu du HBk. Igandean, arratsaldeko 6etan, ohizko lekuan.

### Mendiko Bordak

egiteko baldintzak zehaztu ditu udalak. Gehienez, 62 m<sup>2</sup>ko azalera, 6 metroko altuera eta bi solairu izanen dute eta harria edo blokearekin eginak.

# BAZAR LA MASCARA



- Inauterietako mozerroetan dena daukagu
- Osagarri mota guzien alokairua eta salmenta
- Festen prestakuntza
- Makilari profesionalak...

Bazar denda: Abejeras 6, Tfnoa: 25 00 04 • Faxa: 25 00 04 • 31007 IRUÑEA





# Baztangoizako jubilatuen besta ospatuko da hilaren 25ean

Amaiur, Arizkun, Azpilkueta eta Erratzuko jubilatuekin batera, Urdazubi eta Zugarramurdikoak egonen dira

JOSEBA IGARABIDE

Baztangoiza (Amaiur, Arizkun, Azpilkueta eta Erratzu) Urdazubi eta Zugarramurdiko jubilatuekin besta egingen dute ortzegun honetan, urtarilak 25. Arkupeak elkarrekin antolatutako lekuko besta honetan, Amaiurren meza izanen da hildakoen omeneguz eguerdiko 12,30-etan eta ordubete beranduago Mendialde jatetxean bazkaria.



## Haizea neurtzeko tresnak

Gorramendi, Alkuruntz eta Legaten haizearen indarra neurtzeko tresnak paratuko dituzte. Haize-errotak jarriko dituzten ala ez erabakiko dute gero, emaitzak ikusita.

## Nortasun Agiria berritza

Elizondora joan behar du NANA berritu behar duenak otsailaren 1 eta 15ean eta martxoaren 7 eta 21ean.

## Nafarroako bertsolari txapelketa

Joan den larunbatean Nafarroako bertsolaridunak bilera izan zuten Elizondon,

San Anton eguna ospatu zen Elizondon eta urtero bezala hainbat nekazari bildu zen. Garai batean herri gehiagotan ere ospatzen omen zen egun hau. Gaztanberaren Kofradiak hameketakoa banatu zuen eta eguerdi partean urteroko zozketa egin zen Erresidentziaren alde. Herrian barna erakusten zuten bitartean urduri agertu zen behia 6.897 zenbakiari tokatu zaio, Banco Central-Hispanon saldua. Zeria, Elizondoko Paco Ziaurritz eta lagunei tokatu zaie, bi bildotsak Exkerne baserriko Petra Elizetxeri eta magra Erratzuko Gurutze Garaikoetxeari.

Argazkia: Karmele

## Herrietako alkateen eginbeharrei buruzko solasaldia sortu zen udal batzarrean

Udal batzarrean herrietako alkateen eginbeharra herritarren beharrak, eskaerak edo haserreak Balleko Etxera bideratzea dela erran zen.

Alkatearen ustez, Elizondon ezik -biz-

tanle aunitz dituelako, nonbait- bertze herri guzietako alkateekin lortzen da hori.

UPNko ordezkarien ustez, berriz, herrietako alkateek ez dute inolako konpetentziarik eta ezin du-

te deus inora bideratu, Balleko Etxera ez bada.

HBko ordezkarien erranetan, "Junta Generala ez da garai batean zena, baina konpetentziak ematea guztion lana da".

aurtengo Nafarroako bertsolari txapelketari buruzko xehetasunak

aztertze. Txapelketa otsaila bukaeran hasiko da Baigorri. Hiru

kanporaketa izanen dira, finalerdia Beran eta finala Goizuetan.

## ttipi-flash

❖ **Mendiola** ingurutik 12.000 Tona lur hartzeko baimena ukatu dio Balleko Etxeak Belateko tunelaren lanak egiten ari den enpresari. UPNk aurkeztutako eskari hau aho batez onartu zuen udalbatzak.

❖ **Baztango mendigoizaleak** Artzamendira joan den 28an eta Mugairera mendiz otsailaren 4an.

❖ **Iruritan** guraso eskola martxan paratu nahi dute otsailetik aitzinera.

❖ **Baztango haurtzaindegia** urte berriarekin lanean hasi da. Momentuz, eskola konzentrazioko getan egoten dira haurrak.

❖ **EHNE sindikatuaren babesarekin** Groupama nekazal aseguru etxea zabaldu da Elizondon. Aseguruak Bittor Jauregi amaiurtarrak salduko ditu.

**DANBORIENA**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA  
© 453403 - ARIZKUN

**SAS KAITZ**  
fontanería  
calefacción  
GA

Empresa colaboradora de  
**REPIJOL**  
AUTANO

**Era guzietako instalazioak:  
Etxekoak, industrialak...**  
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

**JATETXEA**  
© 580297  
Pedro Axular  
ELIZONDO  
**Santxotena**




# Belateko lanek zalantzak sortzen segitzen dute

Oraindik ez dago argi Almandoz-Berroetako lotura eta Zozaiko zubi erromanikoaren afera nola moldatuko den

JOSEBA IGARABIDE

Belateko tuneleko lanek solasteko gaia ematen segitzen dute. Azken udal batzarrean, lanen ondorioz Zozaian desagertutako zubi erromanikoari buruz galdetu zen. HBko ordezkariak, kentzea logikoa dela erran ondotik berriz paratuko ote den galderatu zuen, "gorde behar den Baztango ondarea dela" erranez. Alkateari bere garaian, balio haundirik ez zuela erran omen zioten baina berriz galdetuko du eta Bianako Printzea erakundearekin gestioak eginen ditu. Bertzalde, Almandoz-Berroeta loturari buruzko zalantzak ere plazaratu dira. Momentuz, Iruñerako irteerarik gabe daude bi herriak. Alkateak erran zuenez, Berroetako batzarrearen erabakiaren berri eman zaio Nafarroako Gobernuari eta orain aztertzen ari omen dira.



Xorroxin irratia **zozketatutako 50.000 pezetak Arizkungo Nicolas Mendiberrik irabazi zituen**

Argazkia: MENA

## Ikuilu haundiagoak nahi dira

Neurri haundiago-ko ikuiluak egin ahal izateko arauak aldatzea eskatu zaio udalari. Orain arte 20 metro luzera izaten ahal zu-

ten, baina denborarekin tikiak gelditzen dira. Nafarroako Gobernuari igorri zaio proposamena eta baimenaren zain dago Udala.

## Bi lankideren kaleratzea salatu dute Kiwi-Baztango langileek

Kiwi-Baztan enpresako langileek enpresa honetan lanean ari ziren bi emakumeren kaleratzea salatu dute idatzi baten bidez. Idatziak dioenez, "zuzendaritzak bi langile hauek eta bertze batzuk joatean nahi izan du, lantegiari inolako kosturik suposatu gabe". Langileen erranetan 1992an hasi zen egoera txartzen. Geroztik zenbait bilerakin dira eta 1994an egoera normaltzeko eta lan baldintzak negoziatzeko plataforma bat sortu omen zen, inolako fruiturik gabe. Azken urtean, "soldata ez ordaintzeaz gain, kaleratze mehatxuak izan dira" diote langileek "eta gure aldetik zenbait salaketa aurkeztu ditugu Lan Ikuskaritzara".

## Personaiak



### Peio Salaburu

44 urteko arizkundarra, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore egin dute-la eta zoriontzea erabaki du Balleko Etxeak, HBko zinegotziaren aurkako botuarekin. Sotero Etxandi, HBko zinegotziak erran zuenez, "Salabururen ibilbidea ez da zuzena eta demokratikoa izan. Bere planteamenduekin ez gaude ados". UPNko ordezkariak, aldiz, "baztandarra izanik, bertzat bezala Baztandako ohorea da EHUKo erretore izendatzea" adierazi zuen. Alkatearen erranetan, azkenik, "aukeraketa demokratiko batean gehiengo zabala lortu du Peio Salaburu".

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**IÑAUTERIETAKO  
TELAK**

- Denboraldiko arropetan merkealdiak
- Eskulanetarako materialak

**ARLA**  
**ARDOTEGIA**

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago, 56 • ELIZONDO

**ttipi-ttapa**

6.200 harpidedun  
21.000 irakurle



**Pierresenea**

**OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI



Urdazubi

## Bi aurrezki kutxa gehiago izanen dira laister herrian

Bertzalde, urtarrilaren 12 eta 13an ospatutako ihauteriek hasiera eman zaio ihauteri sasoinari

ALIZIA OLAIZOLA

Orain arte bi banku bulego zeuden herrian, Dantxarinea auzoan kokatuak biak, Banco Vasconia eta Banco Exterior. Orain bertze bi aurrezki kutxa gehiago paratu behar dituzte Dantxarinean. Etxartenea etxean Caja Ruralaren bulegoa paratu behar dute eta Maskotenea etxean Iruñeko Kutxaren bulegoa. Azken etxe hau den dena bota dute eta orain berritik egiten hasiak dira, kutxa paratzeko. Sarri, lau kutxa izanen dira herrian.

### Ihauteriak

Ihauterien sasoina hurbiltzen ari da. Toki



Aurtengo Orabidea auzoko ihauterietan

aunitzetan orain hasten dira. Aipatuko dugu gure herri ondoko auzoa, Orabidea, urta-

rrilaren 12an eta 13an ospatu zituztela ihauteriak. Gazteak eskean ibili ziren bertako

Joxe Angel akordiolariarekin. Etxebertzeko bordan egin zuten aforria eta dantzaldia.

❖ **Udalak** ibilgailuen gaineko zerga lege berriari egokitu du, bertze zergekin batera.

Zugarramurdi

## Herriko Etxea moldatzeko zortzi milioiko aurrekontua

Erdia Nafarroako Gobernuak ordainduko du

MARGARI ETA KORO

Frontoi zaharreko pareta bota zutenetik, itxura penagarria ematen duen Herriko Etxeko gibel aldeko fatxadak errezibitzen ditu herrira sartzen diren guztiak. Aitzineko aldetik etxe ederra ikusten bada ere, gainerako paretak arras hondatuak ditu. Dirudenez, hunek denbora gutti iraunen du: Udalak 8 milioi peze-



Herriko Etxeko gibel aldeko fatxadak errezibitzen ditu egun herrira sartzen diren guztiak

tako aurrekontua onartu du lau paretak eta Herriko Etxeko bulegoak moldatzeko. Erdia, Nafarroako Gobernuak ordainduko du.

### Udal bazkaria

Hilbeltzaren 12an Herriko Etxeko jate-txean bildu ziren udal berriko zinegotziak, ohizkoa den bazkaria ospatzera. Egia erran, aldaketa bakarra izan zuen udalak iazko maiatzean: Idoia Telletxea joan eta Francisco Arburua sartu.



# Olhain ikastolak antolatutako XVI. bertso eguna otsailaren 11n

Eguerdian bazkari batean bilduko dira bertsozaleak eta arratsaldeko 4etan bertso saioa izanen da Omordian

MIXEL ETA JACQUELINE

Hamaseigarren urtea da Saran bertsolarien eguna ospatzen dela, Olhain ikastolari esker. Aurten otsailaren 11n burutuko da.

Oren batean, bazkari baten inguruan bilduko dira bertsozaleak eta arratsaldeko 4etan Omordiako antzokian hasiko da saioa. Hor ariko diren bertsolariak, honako hauek izanen dira: Aitor Mendiluze, berriko Gipuzkoako txapeldun suertatu den gaztea, Jon Enbeita, Fermin Mihura, Jean Pierre Mendiburu, Kexus Arzallus eta Estitxu Arozena, Nafarroako txapelduna. Gaiemaile lana Mixel Itzainak beteko du.



Matin eta Hélène, beren opariekin

## Kaikueneko Matin Sanzinena: Herriko langile baten azken lan eguna

Kaikueneko Matin Sanzinena 1978az geroztik herriko langile zen eta hilabete hunen 12an xahar diruan sar-

tu da. Karia hortarat Udalak ohorezko agurra egin zien Matin eta Hélène bere emazteari. Hemezortzi urte

hauetako lana esker-tuz opariak eman zieten senar-emazteei.

Bizi luze bat desiratzen diogu.

## Mendi guneari lotua den laguntza

Diru-laguntza hunen eskuratzeko (artaldearen arabera), galdeak egin behar dira ahal bezain laister Herriko Etxean, azken epea urtarrilaren 31a baita.

Duela hogoi bat urte Sara mendi gune ekarria izaitea onhartu zen eta, hori dela medio, nekazariak diru-laguntza bat jasotzen dute.

## Ihauteriak

Aurtengo ihauteriak otsailaren 17 eta 18an ospatuko dira. Egitarauan aldaketa haundirik izanen ez bada ere, horren berri hurrengo TTIPI-TTAPAN emanen dugu.

M<sup>re</sup> Dolores Miñana  
**TOPOGRAFA**  
**NEURKETA • PLANOAK**  
 Lur neurketak, Luberriak  
 Plantazioak, etab...  
 Santiago 68, 3. esk. ☎ 580143  
**ELIZONDO**

  
**ARMUA**  
**Jatetxea**  
 Zugarramurdiko karretera 3. Km  
 Tfnoa.: 59 91 31 - **URDAZUBI**

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

**ANZABAL**  
 AGENTZIA

- **Zurich Aseguruak**
  - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
  - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
  - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
  - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
  - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

  
**ZUBIRIA**  
 MINDEGIAK

- *Etxeak apaintzeko landareak*
- *Baso landareak*
- *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE  
 TfnoaK: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)  
 Faxa: 948-581274



**EZKONTZAK**

**JAIOTZAK**

**HERIOTZAK**

**Ainhoa Zabaleta Iribarren**, Goizuetakoa, urtarrilaren 9an.

**Adei Ibargarai Agirre**, Narbartekoa, abenduaren 26an.

**David Salas Rodriguez**, Elizondokoa, abenduaren 29an.

**Iñaki Garmendia Belaskoain**, Elizondokoa, urtarrilaren 3an.

**Joshua Van den Hurk Vogeley**, Leitzakoa, abenduaren 25ean.

**Julen Galañena Otxandorena**, Leitzakoa, abenduaren 31n.

**Mikel Sagastibeltza Lasarte**, Leitzakoa, urtarrilaren 4ean.

**Jose Gabriel Apeztegia Loiarte**, Doneztebekoa, abenduaren 18an.

**Maidier Arozena Arburua**, Urrotzkoa, urtarrilaren 8an.

**Inaxi Garate**, Sarakoa, urtarrilaren 7an.

**Ramuntxo Garbiso**, Sarakoa, urtarrilaren 8an.

**Xabier Etxenike Iantzi**, Berakoa, urtarrilaren 6an.

**Pedro Bertiz Etxegarai**, Elbetekoa, urtarrilaren 7an, 62 urte.

**M<sup>a</sup> Teresa Arretxea Amorena**, Elbetekoa, urtarrilaren 7an, 69 urte.

**Josefa Etxebeste Goñi**, Leitzakoa, urtarrilaren 10ean, 86 urte.

**Pilar Garro Goñi**, Doneztebekoa, abenduaren 16an, 102 urte.

**Francisca Apeztexea Baleztana**, Lesakan, urtarrilaren 11n, 81 urte.

**Sabina Mikeo Urrutia**, Lesakakoa, urtarrilaren 12an, 83 urte.

**Jean Andiazabal**, Sarakoa, urtarrilaren 2an, 79 urte.

**Paulina Margarita Telletxea Zugarramurdi**, Berakoa, urtarrilaren 10ean, 81 urte.

**Santiago Ansalas Zubieta**, Etxalarakoa, urtarrilaren 14an, 87 urte.

**Juanito Iruretagoiena Rementeria**, Eratsungoa, urtarrilaren 10ean, 74 urte.

**SEKULAKOA  
GURPILAK**

**5.950**

pezetatik aitzinerat

paratzea eta berdintzea

**BARNE**



**RENAULT**

Berehalako harrera, aitzinetik ordua eskatu gabe auto marka eta modelo guzientzat

NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA	NEURRIA
145/80/13	155/70/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14
5.950	6.835	7.715	8.350	9.970

BEZa barne

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**

Errep. z/g - Tfnoa: 58 04 31 **ELIZONDO**

**TALLERES SANTESTEBAN**

Leitzako Errep., 1. km.a - Tfnoa 45 02 82 **DONEZTEBE**

**SEMPER HNOS., S.L.**

Irun-Iruña Errep. - Tfnoa: 63 06 21 - **BERA**

Eskeintza baliagarria urtarrilaren 31a bitarte



## BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta	
Urgentziak .....	088/061
Osasun Zentruak	
Elizondo .....	452367 / 580235
Doneztebe .....	450300
Lesaka .....	637428 / 637336
Leitza .....	510248 / 510573
Nafarroako Ospitaleak	
Nafarroako Ospitalea .....	102100
SSko Urgentzi	
Zerbitzua .....	246750
Virgen del Camino	
Erresidencia .....	109400
Gurutze Gorria .....	226404
Gipuzkoako Ospitaleak	
Irungo ospitalea .....	614600
Gipuzkoako ospitalea .....	460299
Erresidencia .....	453800
Anbulatorioak	
Irun .....	630264 / 621106
Anbulantziak	
Oitz .....	450242 / 450805
DYA	
Lesaka	
(Larrialdiak) .....	(943) 464622
Doneztebe	
(Larrialdiak) .....	171717
FUNERARIA	
Doneztebe .....	450475
Elizondo .....	580924
Lesaka .....	637404
Suhiltzaileak	
Oronoz-Mugairi .....	592255
Garraioak	
Bidasotarra .....	631150
Baztanesa .....	580129
Leitzarlan .....	515018
Aberiak:	
Iberduero .....	450335 / 450336

## Bortzirietan paper eta kartoi bilketa selektiboa otsailaren 1ean hasiko da

Zerbitzu berri honek ez du zaborren tasetan igoerarik sortuko

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunidadeak paper eta kartoi bilketa zerbitzua jarriko du martxan otsailaren 1etik aitzineira. Horrela, gaur egun Ibardingo zabortegi kontrolatuan lurperatzen diren paper eta kartoi zati haundi bat paper berria fabrikatzeko, lehengai gisa, erabili ahal izanen da aurrerantzean.

### ARGIBIDEAK

Zerbitzu berri honek nola funtzionatu duen jendeari jakinarazteko, Hiri Hondakinen Mankomunidadeak argibideak ematen dituzten paperak bidali ditu Bortzirietako etxe guzietara.



**Paper eta kartoiak 'Paper Bilketa' dioten zabor ontzietan sartu behar dira, karrketan jarriak dituzten tapa urdineko bertze zaborrontzi hoietan.**

Aldiberean, ikasleei ere gai honi buruzko informazioa ematea eskatu die Mankomunidadeak Bortzirietako ikastetxeetako ardura-dunei.

### DENDA ETA LANTEGIETAN

Jendeari eskatu dion bezala, denda eta lan-tegiei ere ahalegin berezia eskatu die Mankomunidadeak. Biltze lana nabarmen erraxtuko duelakotan, kartoiak plegatu

eta paketatzen lotzea biziki eskertuko zaie. Gero, dendetako atean edo zabor biltzaileek biltzen ahal duten tokietan utziz gero, urteko astelehen eta ortzegunero pasatuko dira zabor biltzaileak paper eta kartoi hoiek biltzera.

### BIRZIKLATZEKO BALIO DUTEN MATERIALAK ETA BALIO EZ DUTENAK

Paper eta kartoi itxurako material guztiak ez dira birziklatzeko baliagarriak. Egunkariak, aldizkariak, liburuxkak, publizitate orriak, kartoizko kaxak eta paper garbiek balio dute birziklatzeko. Haur ttikiek erabiltzen dituzten pioxihalak, plastikoz eta zelofanez inguratutako paperek eta paper eta kartoi zikinek, ordea, ez dira horretarako gokiak.

## Bertizko Merkatal Elkargoak zozketatutako bidaiak

Elkarte honetan sartuak dauden dendetan erosketak egiteagatik, Torremolinosera aste bateko hiru bidai bikoitz zozketatzen ziren. Urtarrilaren 15ean jakin zen zeintzuk ziren zenbaki sarituak eta zein komertzioetan salduak ziren.

Baztanen, errate baterako, Elizondoko Iparla Kirolak banatu zuen 38.518 zenbaki saritua eta hau idazteko orduan ez zen ezagutzen nori tokatua zitzaion.

Malerrekan, Boutique Pikabeak banatu zuen eta 106.591 zenbakiari egokitu zitzaion saria, bere izena ezagutzera eman nahi ez zuen pertsona bati.

Bortzirietan azkenik, Maritxalar Ahizpek duten arropa dendan banatu zen 226.973 zenbaki saritua. Zenbaki hori Tere Maritxalar eta Luciano Mitxelenak daukate eta beraientzat da Torremolinos-erako bidaiak.



**HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK**

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI  
Tfnoa eta Faxa: 592179

## ARDI GAZTAK

Komitz Baserrian  
GAZTELU

© 393101



## Berako Gure Txokoa futbol taldea aitzineko postuetan kokatu da denboraldi honetan

✘ Sailkapena zein estu dagoen ikusita mailaz igotzen saiatuko dira

✘ Arazorik nagusiena jendez eskas dabilzala da Dagerre entrenatzailearen ustez

Berako Gure Txokoa elkarteko futbol talde nagusia Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailan ari da aspaldiko urteotan. Hagitz denboraldi txukuna egiten ari da aurtengoa eta hamasei taldeko multzoan 6. dago lerro hauek idazterakoan, 19 partidu jokatuta, 10 irabazi, 4 berdindu eta 5 galdu ondotik. 34 gol sartu dituen bitartean 25 jaso ditu.

### HELBURUA:

### MAILAZ IGOTZEA

Zazpigarren postura dexenteko aldea dagoen bitartean, aitzineko sei taldeak elkarrengandik hurbil daude momentuz. Hau ikusirik, "Eguberrietan egindako bilera baten, gure helburua mailaz igotzea izan behar dela erabaki genuen eta horretan saiatuko ga-



Berako Gure Txokoa taldeak liga hagitz ona burutzen ari da denboraldi honetan

Goiko

ra" dio Miguel Dagerre, beratarren entrenatzaileak. Horretarako ilusioz betetako taldea du, nahiz eta jendez eskas xamar ibili batzutan. Dagerrearen erranetan, "sei partidutan hamabi lagun bertzerik ez gara bildu eta

hori nabaritzen da. Liga motza da aurten eta partidu guziak hagitz garrantzitsuak dira". Halere, igotzea ez dela errega izanen onartu du Dagerrek: "zuzenean talde bakarra igotzen da, eta hori lortzea loteria bat da.

Baina aurtengoa izaten ahal da gure aukera". Talde nagusiaz gain, futbolari dago-kionez, jubenil, kade-te eta infantilak osatzen dute harrobia, nesken taldea ahanzi gabe. Horretaz gain, kirol eta kultur arloari lo-

tutako hainbat aktibitate egiten ditu urtean zehar Gure Txokoa elkartek.

Elkartearen urteko aurrekontutik 2,3 bat milioi futbolera bideratuak daude eta 1.300.000 pezeta erre-gionaleko taldeari. ■

«Garai bateko indarrak gain, baloia jokatzen duen jendea daukagu taldean»

■ Zein helbururekin hasi duzue denboraldia?

□ Talde bezala, kategorian asentatzea eta, pertsonalki, jubenilak pixkanaka taldean sartzen hastea. Lehenbizikoa ongi betetzen ari gara, baina bigarrena, lan arazoak eta eritasunak direla eta, ez da nik nahi bezala bete.

■ Ligan ongi zabilzate. Zertan da horren sekretua?

□ Jendea ilusioarekin ikusten dut eta posible



Miguel DAGERRE

Entrenatzailea

ibili, jokalaririk izandakoak aritu dira entrenatzaile gisara eta 'nobatada' ordaindu izanen dute, akaso.

■ Nola definituko zenuke zure taldea?

□ Orain arte gure ezagarririk indarra zen. Jokalaririk berriekin baloia gehiago jokatzen da. Indarra eta teknika arteko nahasketa bat da. Gainera, ekipo bizi-korra eta bizia da.

■ Zer nota jartzen diozue egindako lanari?

□ Orain arte 7 bat.

### Banan Bana

Jokalaria	Postua	Adina
Ander Altzuri	Atezaina	18
Jose Mari Ugalde	Atezaina	27
Jose Luis Tapia	Atzelaria	19
Angel M <sup>a</sup> Aranibar	Atzelaria	18
Oskar Urkiola	Atzelaria	21
Rafael Ponbar	Atzelaria	26
Juan Esteban Otxoteko	Atzelaria	21
Javier Tapia	Atzelaria	20
Aitor Erkizia	Erdilaria	22
Jose Manuel Otxoteko	Erdilaria	20
Andoni Larrañaga	Erdilaria	19
Felipe Saragueta	Erdilaria	20
Javier Lasarte	Erdilaria	22
Javier Jabalera	Erdilaria	25
Fernando Artieda	Erdilaria	28
Basilio Zapiain	Aurrelaria	29
Angel Ponbar	Aurrelaria	21
Jose Manuel Portu	Aurrelaria	20




# Nafarroako sokatira txapelketak martxan daude dagoeneko maila guztietan

Lesakako Beti Gaztek, uste baino lan haundiago egin behar izan zuen Sakana eta Aresoko taldeen kontra 680 kiloko txapela bururatzeko

Urtarrilaren 7an Leitzan ospatu zen ihar-dunaldiarekin hasiera eman zitzaion Nafarroako sokatira txapelketari. Bertan, gizon-zeko borts talde (Beti Gazte, Txantrea, Etxauri Harana, Sakana eta Areso) 680 kiloz goitiko pisuan eta emakumezko hiru talde (Berriozar, Sakana eta Etxauri Harana) 520 kiloz behitiko pisuan aritu ziren.

## LEHIA BIZIA ARESO, SAKANA ETA LESAKA ARTEAN

Mutilen artean lesakarrak ziren faboritokak. Halere, Aresoren kontrako saioan, lehenengo tiraldia galdu, bigarrena irabazi eta hirugarrena berriro ere galdu egin zuten. Txapela aresoarrentzat izanen zela pentsatu zen, baina hurrengo saio-



Lesakarrak irabazi dute 680 kiloko Nafarroako sokatira txapelketa Egin

an, nekea nabaritu eta Sakanakoen kontra galdu zuten, txapela berriro airean utziz. Azkenurreko tiraldian Sakana eta Beti Gaztekoek neurtu zituzten indarrak. Lesakarrak indarberrituak ateri ziren, bi tiraldiak iraba-

ziz. Honela bada, txapelduna Beti Gazte (10 puntu), bigarren postuan Sakana (9), hirugarren Areso (8), lauugarren Txantrea (3) eta bortsagarren Etxauri Harana (0).

Nesken artean Berriozarkoak nagusitu

ziren, bigarren Sakana eta hirugarrena Etxauri Harana izan zen.

640 eta 600 kiloko lehen saioak ere burutu ziren urtarrilaren 13 eta 14an Arbizu eta Arazurin. Hauetan ere Beti Gaztekoak nagusitu ziren.

## BOITE pronto

### ❖ Baztango pilota txapelketa

Errege egunean jokatu ziren Baztango pilota txapelketako finalak Irurritako Aranabia pilotalekuan.

Haundien mailan, Mikel Goñi eta Abel Barriolak 22-13 irabazi zioten Enrique Galarza eta Otxandorenari. Jubeniletan, Irurtzongo Ripa eta Lakuntza 22-4 nagusitu ziren. Larunbe eta Iriarteren kontra. Gainerako txapelkunak, Irazoki-Altzuguren (infantilak), Moustartz-Pouyets (benjaminak) eta Ezkurra-Urrutia (aurrebenjaminak) izan ziren.



DV txapelketa gazte mailan irabazi ondoren, Oronozko herriaren omenaldia jaso zuten Goñi eta Otxandorena herritarrak. Beraiekin batera, aspaldiko urtetan pilota irakaslea den Juanjo Atxa almandoztarrak ere oronoztarren esker ona jaso zuen Arg.: Josu INZIARTE

## Hamabostaldiko Jokaldiak



**Mikel Goñi** Oronozko pilotaria.

DV txapelketa Otxandorena herritarrarekin batera irabazi zuen eta torneoko pilotaririk onena izendatu zuten. Ondoren, Errege egunean, Baztango txapelketa irabazi zuen maila nagusian Barriolarekin batera.



**Areson** frontoi estalirik ez izatea.

Nafarroako 680 kiloko sokatira txapelketa Areson burutu beharra zen, baina euria ari zuenez Leitzara eraman zuten antolatzailerek. Herritarren animoekin tiratuz gero, akaso txapeldunak izanen ziren.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## INAUTERIAK

### ITUREN-ZUBIETA

**Urtarrilaren 27tik 30era.** Astelehenean, urtarrilak 29, Zubieta eta Aurtizko joaldunak iturenerako bidea egiten dute. Hurrengo egunean, urtarrilak 30, Ituren eta Aurtizko joaldunak bisita itzuli-ko diete Iturendik Zubietarako bidea eginez.

## SUNBILLA

**Urtarrilaren 26tik 28ra** Ikus xehetasunak aldizkari honekin batera dagoen gehigarri berezian.

## OSPAKIZUNAK

### Kandelaria Eguna

**Otsailaren 2an**  
Kandela Bedeinkatzeak herri guzitan.

### San Blas Eguna

**Otsailaren 3an**  
Zintzurko minen zaintzaria. Janari bedeintzeak.

### Santa Ageda Bezpera

**Otsailaren 4an**  
Mesakan kopia kantari biliko dira.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### Legatz maxelak

#### Osagaiak 4 lagunendako

• 20 legatz maxel • pikillo piper lata bat • irina • arraultzeak • gatza • olio • perrexila • baratxuriak •

#### Prestatzeko manera

Legatz maxelei gatza bota ondok, irin eta arraultze irabiatuan pasatuko ditugu eta zartagi batean prexitu. Egin ahala,

platera batera aterako ditugu olio xukatzeke. Horretarako, plateraren zolean xukatzeke papera jarriko dugu.

Bestalde, lurrezko kaxula batean pikillo piperrak jarriko ditugu baratxuri batzurekin eta xuabe-xuabe kaxula mugituko dugu saltsa loditu arte. Segidan, piperraren gainean olio xukatzen jarriak ditugun legatz



M<sup>o</sup> Jesus  
BALEZTENA

Herriko  
Ostatua  
• ZUBIETA •

maxelak jarriko ditugu eta apaingarri gisa perrexil pixka bat.

On egin!

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

• **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.200 pzta.  
• **Zerri gizena** (95-100): 165 pzta./kilo  
• **Zerramak**: 120-125 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

• **Aretze gizenak**:  
• **Idixkoak**: Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 570  
1.koa ..... 550  
2.koa ..... 520

• **Urruxak**: Pzta./kg. Kanal  
Extra ..... 580  
1.koa ..... 560  
2.koa ..... 530  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urru-xentzako.  
• **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):  
**Nabarrak**: urruxak 18.000 eta idixkoak 26.000 Pzta.  
**Mestizoak**: urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pzta.  
**Behi zaharrak**:  
Behi nabar gizona: 400 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 460 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,  
ZUBIRIA MINDEGIAK...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza  
• **Bertako sagarrondoa** 950.  
• **Udareondoa** 950 pzta.  
• **Gereziondoa** 1.050 pzta.  
• **Aranondoa** 1.050 pzta.  
• **Muxika** 880 pzta.  
• **Urritza** 880 pzta



### ❖ LANDAREAK ❖

• **Porruak** zientoa 400.  
• **Tipulak** zientoa 800.

# koxkonta

*Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia*

*Deitu erreserbak egiteko*

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

# LANCHAS

• Parketak - Tarimak  
• Kutxillatzea eta bernizatzeak  
• Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735  
Irun ☎ (943) 622305



## ZONAKO SAGARDOTEGIAK

### Lekarozen Larraldea sagardotegia

Larraldea sagardotegian denboraldi berria dagoeneko martxan jarria dute. Sagardotegi hau aitzindaria dugu gure eskualdean. Sagardoa beraiek produzitu eta saltzen duten bakkarrak dira. Aurtengoan produktu berri bat jarri dute merkatuan, 'Sagardoz' pattarra.



Gregorio Elizetxe eta Jesus Angel Garcia dira Larraldea sagardotegiko nagusiak

bada bertze jaki klaserik prestatzeko aukera.

#### DATUAK

##### Non dago:

Lekaroz herrira sartu eta Elizaren eskuinaldetik pasatzen den bidetik segitu behar da 1,5km. inguru. Badaude seinaleak.

##### Telefonoa:

(948) 452121

##### Menua:

Bakailu tortilla, ajoarrieroa, txuleta, gasna, gasna zaharra, gaztainak, giltzaurrak, menbrilloa.

##### Prezioa:

2.000 - 2.500 Pta.

##### Denboraldiaren iraupena:

Maiatza bitarte. Abuztuan itxi egiten dute jatetxea.

Astegunetan gaueko 8etatik aitzin irekitzen dituzte ateak, eta larunbat igandetan egun osoz.

Denboraldia apiril ondarrerrarte luzatuko da eta orduan kupeletako sagardoa bolitan sartuko dute mama goxoa dastatzen segitu ahal izateko.

#### BERTAKO SAGARRAK

Aurtengoan sagardo ia guzi guzia Baztango sagarrez eginga omen dute, beraiek dituzten 2.000 sagarrondetatik eta baita inguruko baserrietakoarekin ere. Aurtengo hogeitabost mila litroak egiteko falta zutena Gipuzkoatik ekarri dute hala ere.

#### 25.000 LITRO SAGARDO

Probatzeko prest, 25.000 litro inguru daude Larraldea-ko kupeletan. Txotxaren prezioa 450 pezeta. Menuari dagokionez, bertze urtetakoaren antzekoa izanen da eta bi mila pezeta pasatuxearekin afari politta egiten ahal da. Lehendik enkargua eginez gero,



## LARRALDEA Sagardotegia

#### IDEKITZE ORDUAK

- Astearretik ortzirralera 8etatik aitzin
- Larunbat-igandetan egun osoz.

Deitu lekua gordetzeko

Tfnoa: 452121

L E K A R O Z

## AGENDA EGUNEZ EGUN

#### ZINEA

#### DONEZTEBE

► **Urtarrilaren 27-28an** zine aretoan 'La última batalla'.

► **Otsailaren 3-4an** zine aretoan 'El especialista'.

#### KONTZERTUAK

#### BERA

► **Otsailaren 27an** Kultur Etxean 'Free Spirit Jazz Band' taldearen kontzertua.

#### GUARDIAKO BOTIKAK

► **Urtarrilaren 22tik 28ra** Lesaka, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Urtarrilaren 29tik Otsailaren 4ra** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

► **Otsailaren 5tik 11ra** Etxalar, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.



## ETXEBIZITZAK

**ZUGARRAMURDI.** 179 m<sup>2</sup>ko baserria salgai, 1,29 Hektareko kotoarekin, iturri eta guzi. Baita 23 area-ko belagia ere. ☎ 599119 (Urdazubi) eta 580537 (Azpilkueta).

**BERA.** Pisua salgai. ☎ 631232 edo 943-397388.

**BERA.** 95m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Sukalde ekipatua, kafakzioa eta nahi baldin bada, garagea. ☎ 630686. Arratsaldetan.

## DENETARIK

**Kartelak,** buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, Faktura taloia... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

**BERA.** 24 m<sup>2</sup>ko bajera salgai Altzaten. Motoa eta bizikleta uzteko tokia du bakarrikan. ☎ 630722.

**LESAKA,** 130 m<sup>2</sup>ko bajera salgai. ☎ 637404.

**LESAKA,** Bajera bat alokatzen da Albistur karrikan lur azpian. ☎ 637948.

**LESAKA.** Lokala traspa-

soan. ☎ 637404.

**URNIETA,** 8.000 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai. ☎ 948-510431.

**KORTES.** Udara pasatzeko etxea alokatzen da Nafarroako Erriberako Kortez herrian. ☎ 630332.

**BARAÑAIN.** Bi lagun behar dira pisu bat osatzeko. ☎ 610806 (1etatik 2,30etara edo 9etatik 10,30etara).

**Esnea hozteko** tankea salgai, Happy marka, 320 litrokoa. ☎ 599211.

Battle markako **enpakadora** salgai, 2'10 zabal, arras ongi dagoena. ☎ 592016 (Javier).

Motoan ibiltzeko **larruzko txaketa** ia berria (negu batez ibilia) salgai. ☎ 635251 (eguerdi aldean).

**Tresilloa** salgai Elizondon, egoera onean eta merke. ☎ 631018.

**Bi ohatzeko** gela salgai. Oheak 1,05ekoak dira. ☎ 637162 (eguerditan 1-1,30etara eta 4,30-7etara).

**Haritz amerikanoak** eta **gaztain plantak** salgai. ☎

450888 (eguerdi eta arratsetan).

## LANA

**Erizain** titulatuak, adineko jendea zaintzen lan egingen luke. Esperientziarekin. ☎ 630578.

**Neska batek** haurrak zaintzen, etxeko lanetan edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingen luke. Esperientziaduna. ☎ 637346.

**Pintorea** eskaintzen da era guzietako pintura lanak egiteko. Aurrekontuak konpromisurik gabe. ☎ 908.674429.

## IBILGAILUAK

**Audi** **SAMPI ARAGON**

Bigarren eskuko autoak, furgonetak eta mendiko autoak erosiko nituzke. Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**Opel Astra Van** 1700 Diesela salgai. NA-AH matricula eta 42.000 km. Prezio onean. ☎ 510089 (otorduetan).

**Ford Fiesta** automatikoa salgai. NA-AK, 5 atekoa eta km. guttirekin. ☎ 631183.

**Honda Dominator** 650-ekoa, berria NA-AK salgai. Deitu asteburuetan. ☎ 948-451650

## AZIENDAK

**Bi ahariko** mutur gorriak salgai, bat adarrekin eta bertzea gabe. ☎ 397004 (Mikel, iluntzean).

**Oilagor** ehizirako zakurkumeak salgai. Sei hilabeteakoak. Setter eta Pointer arrazakoak. ☎ 510249.

**Oilagor** ehizarako zakurra salgai. Bi urtekoa, Setter ingeles arrazakoa. ☎ 948-510249.

Pekines arrazako **txakurak** salgai. ☎ 631218.

**Ardiak** bere subentzioekin salgai. ☎ 450142.

## AGURRAK

**TTIPI-TTAPA** egiten duzuen gutziei zorionak eta urte berri on bat opa dizuet bihotz bihotzez. **TTIPI-TTAPAK** urte

berri asko ospa ditzan espero dut, oso ona baita gutzientzat. Idoia.

**Lesakako** Andoniren partez muxu bat I.A.ri. Ea noiz enroilatzen garen.

**Agur**ne maite zaitut. Mutil baten partez.

**Iguxki:** Sendatu zaitze laister. Zu gabe gaua ez da berdina. Gaupasazale suizida.

**Mikaela Olano:** zorionak urtarilaren 24an. Leitzako guraso eta senideen partetik.



## TELLETXEA MOBLEAK

Rosa Seminario z/g • ☎ 45 02 58 • DONEZTEBE



**Ate korredoradun Armairuak**





# EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • APJ 129

INFORMAZIOA: 451518 (DONEZTEBE) • 23 48 30 (IRUÑEA) • 908. 77 76 96 (Mugikorra)  
Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



**Oieregi.** Tenis pistaren ondoan bi familirendako etxea salgai. Lau logela, bi bainu, sala tximiniarekin, sukaldea, garajea, lorategia eta kalefakzioa. 17.000.000 pezeta



**Arizkun.** Egin berria den etxea salgai, 3.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin. Bi familirendako edo ostataua jartzeko espeziala. Prezioa: 30.000.000 pezeta negoziagarriak



**Espinal Hiru solairuko etxea salgai.** Solairu bakoitzeko 100 m<sup>2</sup> baratzearekin. Bizitzen paratzeko moduan. 13.300.000 pezeta



**Sunbilla.** Pisu mobleztatua salgai, kalefakzioa eta garajearekin. Prezioa: 11.300.000 pezeta..



**Ezkurra.** Borda, lur eremuarekin salgai. 2.500.000 pezeta

**Ezkurra.** Etxea, lur eremuarekin salgai. 18.300.000 pezeta.

**Irurita.** 'Hostal Baztan' ondoan, pisua saldu edo alokatzen dut. Bi terraza eta garajearekin. Prezioa negoziagarria.

**Irurita.** Apartamentua, kalefakzioa eta ganbarakin salgai. 6.500.000.

**Doneztebe.** Aparanen 150 m<sup>2</sup>ko pabeloia saldu edo alokatzen da.

**Doneztebe.** Apartamentu mobleztatua alokatzen da Amezitia karrikan. 50.000 pezeta/hilean.

**Doneztebe.** Merkatari karrikan, Ezkurra erretegiaren ondoan 24 m<sup>2</sup>ko bajera alokatzen dut. Prezio arras interesgarria.

**Sunbilla.** Oso egoera onean dagoen pisua salgai, sukalde ekipatua, armairu enpotratuak pasiloan eta logeletan. Hiru logela, sala, sukaldea eta ganbara. 9.000.000 pezeta negoziagarriak.

**Bera.** Legia karrikan, Txispirrinea etxean, 207 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai, terraza eta aparkamenduarekin. Erretegia edo banketxea paratzeko espeziala.

**Bera.** 90 m<sup>2</sup>ko duplex apartamendua salgai. Sukaldea montatua eta igogailua. Estreinatua gabe, goi mailako materialekin egina. Aparkaleku pribatua. 10.950.000 pezeta.

**Bera.** Txaleta, 1.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin salgai. 40.000.000 pta.

**Bera.** 92 m<sup>2</sup>ko apartamendua salgai Legia karrikan. Kalefakzioarekin 10.950.000 pezeta.

**Bera.** 100 m<sup>2</sup>ko luxuzko pisua salgai. 11.700.000 pezeta.

**Zubieta.** 90 m<sup>2</sup>ko pisua estreinatua gabea salgai, sukaldea, sala, bi bainu, hiru logela eta 20 m<sup>2</sup>ko ganbara. 8.500.000 pezeta.

**Elizondo.** Saskaitz Plazan, pisu amueblatua salgai.

**Elizondo.** Pisua salgai. 6.500.000 pezeta.

**Igantzi.** Etxea, sukalde ekipatua eta jardinarekin salgai. 14.500.000.

**Ziga.** Borda salgai, egoera onean eta bista ederrekin. Prezio negoz.

**Baztan.** Borda, ura, argia, bidea eta eraikitzeko baimenarekin salgai.

**Monteagudo.** Tutera ondoan bizitzeko moduan dagoen etxea saldu (3.500.000) edo Baztan-Bidasoaldeko borda batez aldatuko nuke.

**Hendaia** Topo geltokiaren parean estudioa salgai. 6.200.000 pezeta




# Laguntza Eskaria

# P.A.C.



LAISTER, 1996KO P.A.C.  
LAGUNTZA ESKARIA EGIN AHAL  
IZANEN DA.  
NOBEDADE GISA, AURTEN  
ZIENDEN LAGUNTZA ESKARIA  
KAERA ORRI BEREAN EGINEN  
DA.  
ERRIRO ERE AURRERA ZAITEZ.  
ZATOZ KUTXARA.



Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin